KONTRATU MOTA:	**ZERBITZUAK**
PROZEDURA:	**BERRIKUNTZARAKO ELKARTEA**
ERREGULAZIO HARMONIZATUKO KONTRATUA	**☒Bai ☐Ez**
ERREKURTSO BEREZIAREN MENDEKO KONTRATUA	**☒Bai ☐Ez**
LIZITAZIO EZ-ELEKTRONIKOA	

Tramitazioa

Espediente-kodea:
2026JKIR0020

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

EZAUGARRIEN TAULA

1.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
Entitate kontratatzailea	BIDEGI
Posta-helbidea	Asti auzoa 631 A, 20800 Zarautz
Posta elektronikoa	adm@bidegi.eus

2.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA	https://www.contratacion.euskadi.eus/

3.- KONTRATU HONEKIN ASE BEHARREKO BEHARRAK
BIDEGIk, bere hobekuntza prozesuaren barruan, gidariarentzako DSRC teknologian oinarritutako alerta-plataforma bat eduki nahi du, erabat operatiboa, bluetooth bozgorailu baten bidez audio-jakinarazpenak denbora errealean emateko gai izango dena. Euskarri fisikoak Abiaturen bertsio berrian integratuta egon behar du, eta emaitzazko prototipoak eskala industrialean produzitzeko modukoa izan behar du. Prozesua bi etapatan banatuko da: -1. ETAPA: Gailuaren bideragarritasun teknikoa baliozkotzea, ekosistema eta TAG ABIATU egokitzea eta lehen pilotua sortzea. -2. ETAPA: Industrializatu aurretik produktua eta haren prestazioak garatzea,.

4.- KONTRATUAREN XEDEA
Kontratuaren xedea da berrikuntzarako elkarte bat sortzea, helburu hau duen sistema bat garatzeko: bidesarien ekosistema eta BIDEGIk operatutako TAG ABIATU zabalduta gidariei intzidentziak (auto-ilarak, istripuak, obrak, etab.) ohartaraztea, Back Officetik zuzenean gidariei alerta-mezuak transmitituz audio-jakinarazpenen bidez. Ase nahi den beharrari ezin zaio erantzun merkatuan eskuragarri dauden produktuak edo zerbitzuak eskuratuta, espedientearen memorian justifikatzen denez.
CPV kodea(k): 73300000-5 – Ikerketaren eta garapenaren arloko diseinua eta gauzatzea.

5.- LIZITAZIOAREN BEHIN-BEHINEKO AURREKONTUA	
Prezioa zehazteko sistema	Unitateko prezioak ☐Bai ☒Ez Horrenbesteko prezioak kontratuaren zati baterako ☐Bai ☒Ez Horrenbesteko prezioak kontratu osorako ☐Bai ☒Ez
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZa kanpo)	€
BEZ (% 21)	€

Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan erregistratuta – 1973 liburukia. 215 folioa. SS-21021 orria IFK. A20783023
Inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa – tomo 1973, folio 215, hoja SS-21021 CIF: A20783023

https://munigex.net/r/0/200/AAAABHS06.pVxZ

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren banakatzea	Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua behin-behinekoa da, SPKLren 102.7 artikuluan erregulatutakoaren arabera; izan ere, fabrikatu nahi den prototipoa merkatuan produktu berria denez, ez dago erreferentziazko indizerik lizitazioaren oinarrizko prezioaren estimaziorako oinarritzat hartzeko. Ikus 7. klausula.

6.- KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA (BEZa KANPO)

- Balio estimatuaren aurrekontua: SEIEHUN MILA EURO(600.000€) (BEZa kanpo)
- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: EHUN ETA HOGEITASEI MILA EURO(126.000€) (BEZa kanpo)

7.- KONTRATAZIO-ORGANOA	Bidegi SAko Administrazio Kontseilua

8.- KONTRATUA KUDEATZEN DUEN ORGANOA	Bidegi SAko zuzendari nagusia

9.- EGIKARITZE-EPEA

Epe osoa: HEMEZORTZI (18) HILABETE

Epea behin-behinekoa da, I+G zerbitzuaren izaera berritzailea eta prestaketa-fasean eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartuta, eta epea mugatzeko oinarri gisa jardungo du, ezin izango baita gainditu, lizitatzaileak egiten duen guztizko eta etapakako epe-plangintza gorabehera. Preskripzio Teknikoen Agiriaren bigarren klausulan fase bakoitzerako 9 hilabeteko epea ezartzen da. Epe horiek gutxi gorabeherakoak dira, eta fase bakoitzaren iraupena aldatu ahal izango da, betiere azken epeak agiri honetan ezarritako 18 hilabeteak gainditzen ez baditu.

Epe partzialak ☒Bai ☐Ez

Epe partzialak kontratu hau egikaritzen den bitartean egingo diren faseei dagozkie, eta bi etapa edo epe partzialetan banatuko dira:

- 1. epe partziala: Gailuaren bideragarritasun teknikoa baliozkotzea, ekosistema eta TAG ABIATU egokitzea eta lehen pilotua sortzea.
- 2. epe partziala: Soluzioaren garapena, besteak beste, gailuaren autonomia edo bateria eta haren birtualizazioa barne hartuta.

10.- LUZAPENA

☐**Bai** ☒**Ez** Luzapen-epea:

11.- SORTETAN ZATITZEA

Ez dago sortarik, eta ez zatitzea arrazoi hauetan oinarritzen da:
Xedearen izaerak berak zatiezin bihurtzen du kontratua.

12.- ORDAINBIDEA

Transferentzia bidez. Adjudikazioaren prezioa adjudikaziodunak hilero egingo duen ziurtagiriaren bidez ordainduko da, PTAren 5. atalaren arabera. Kontratistak fakturazio elektronikoaren bidez aurkeztuko ditu bere fakturak, BIDEGI SAren web-orriaren bitartez.

Ordainketa horiek konturako ordainketen kontzeptua dute, eta azken neurketaren ondoriozko zuzenketa eta aldaketen mende daude (SPKL, 240. artikulua).

Fakturazio elektronikoaren datuak:
-IFK: A20783023
-DIR3 (unitate guztiak): LA0012081

Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan erregistratuta – 1973 liburukia. 215 folioa. SS-21021 orria IFK. A20783023
Inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa – tomo 1973, folio 215, hoja SS-21021 CIF: A20783023

-Kontabilitate-bulegoa: LA0012081
-Organo kudeatzailea:
-Unitate tramitatzailea: LA0012081
-Organo proposamengilea: LA0012081

13.- HARTZEKO ETA ENTREGATZEKO/EGIKARITZEKO LEKUA

Bidegi SAren bulegoa: Asti auzoa 631-A (Zarautz).

14.- ALDAEREN ONARGARRITASUNA

☐Bai ☒Ez Eskakizunak, modalitateak, alderdiak:

15.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

☐Bai ☒Ez

Berrikusteko formula:

16.- BAIMENAK / GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK, EKONOMIA- ETA FINANTZA-KAUDIMENA ETA KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA

1) ENPRESA- EDO LANBIDE-ARLOKO BAIMENAK/GAIKUNTZAK
(SPKL, 65. artikulua)

Badagokio ☒Bai ☐Ez

SPKLren 178. artikuluaren hirugarren apartatuan jasotzen denez, lizitazio honetan parte hartuko duten hautagaiak aukeratzeko, kontratazio-mahaiak kaudimen-irizpide objektiboak aplikatuko ditu, hautagaiek ikerketaren eta garapenaren arloetan duten gaitasunari dagokionez, baita soluzio berritzaileak landu eta aplikatzeari dagokionez ere.

Eskatutako informazioaren ondoren kontrakzio-mahaiak gonbidatzen dituen enpresaburuek bakarrik aurkeztu ahal izango dituzte ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak, kontratazio-organoak adierazitako beharrei erantzutera bideratuak eta dauden soluzioekin ase ezin direnak.

Testuinguru horretan, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

2) KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA

1.- Lizitatzaileak TAG,DSRC edo antzeko ordainbide elektronikoen produktorea izan beharko du.

Ondorio horietarako, lizitatzaileak zinpeko deklarazioa aurkeztu beharko du, eta bertan jasoko du ordainbidea zein bezerori hornitzen dien eta gailuak fabrikatzeko lantegiaren edo lantegien kokapena zein den.

2.- Lizitatzaileak dagokion ordainbidea homologatuko duten EB ziurtagiriak dituela egiaztatu beharko du.

3.- Lizitatzaileak ziurtatu beharko du bere enpresa-egituran garapen teknologikora bideratutako sail edo atal bat duela.

Ondorio horietarako, lizitatzaileak zinpeko deklarazioa aurkeztu beharko du. Bertan, atal edo sail horri atxikitako langileak eta horiek betetzen dituzten eginkizunak jasoko dira, baita sail horren egitura eta berezko garrantzia duen edo beste sail batean integratuta dagoen ere.

Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan erregistratuta – 1973 liburukia. 215 folioa. SS-21021 orria IFK. A20783023
Inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa – tomo 1973, folio 215, hoja SS-21021 CIF: A20783023

Baldintza horien egiaztapena ezin izango da bete EKABa aurkeztuta; aldiz, goian aipatutako baldintzak betetzen direla fiskalizatzeko aukera emango duten ziurtagiriak edo frogagiriak aurkeztu beharko dituzte.

Kontratazio-mahaiak egokitzat jotzen dituen argibideak eskatu ahal izango dizkie lizitatzaileei, baita dokumentazio berria, exijitzekoak diren kaudimen-eskakizunak betetzen dituzten modu frogagarrian argitu ahal izateko.

4) SAILKAPENA

Lizitatzaileak sailkapen honen bidez ere egiaztatu ahal izango du bere kaudimena:

☐Bai ☒Ez

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA

5) INGURUMEN-KUDEAKETAKO ETA KALITATE-BERMEKO ARAUAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEA

☐Bai ☒Ez

Lizitatzaileak ziurtagiri hauek aurkeztu beharko ditu:

17.- BALIABIDEAK NAHITAEZ ATXIKITZEKO KONPROMISOA

☐Bai ☒Ez

Baiezkoan:

18.- DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ENKARGUA

☐Bai ☒Ez

Baiezkoan, adierazi enkarguaren helburua:

19.- AZPIKONTRATAZIOA

EKABen adierazi beharrekoa:

a) Azpikontratatzea aurreikusi den kontratuaren zatia, adierazita zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila ☐Bai ☒Ez

b) Zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko aurreikuspena, enpresaren izena edo profila adierazita (*datu pertsonalen tratamendua enkargatuz gero*) ☐Bai ☐Ez

Zuzeneko ordainketak azpikontratistei ☐Bai ☒Ez

Azpikontratatu ezin diren zeregin kritikoak ☒Bai ☐Ez

Azpikontratatu ezin diren zeregin kritikoen deskribapena:
DSRC TAG prototipoaren eta haren funtsezko elementuen diseinua.

20.- BERMEAK

BEHIN-BEHINEKOA

Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan erregistratuta – 1973 liburukia. 215 folioa. SS-21021 orria IFK. A20783023
Inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa – tomo 1973, folio 215, hoja SS-21021 CIF: A20783023

	☐Bai ☒Ez	Zenbatekoa: ..... € [lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 (BEZa kanpo)]
BEHIN BETIKOA	☒Bai ☐Ez	Zenbatekoa: ..... € [adjudikazioaren zenbatekoaren % 5 (BEZa kanpo)]
OSAGARRIA	☐Bai ☒Ez	Zenbatekoa: ..... €
BERMEALDIA	SEI (6) HILABETE	

21.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1) BALIO-IRITZIEN BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK

☒Bai ☐Ez

Irizpideak eta haztapena
Memoria teknikoa (49 puntu). *- OBU DSRC gailu "arina" egokitzeko proposamena PTPAn zehaztutako prestazioak betetzeko (27 puntu).* *- Proposatutako lan-programa justifikatua, mugarri partzialak barne, bai 1. etaparako, bai 2. etaparako, etapa hori garatuz gero (15 puntu).* *- Diseinatutako prototipoak DSRC antenekin probatzeko moduaren proposamena (7 puntu).*

Adierazi ebaluazioa nori dagokion:

☐Bai ☒Ez Adituen batzordea
☐Bai ☒Ez Organismo tekniko espezializatua: (jarri identifikazioa)

Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira exijitutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta BAT edo BI zenbakiko gutun-azaletan sartzen dutenak formulak aplikatuz ebaluatu beharreko dokumentazioa (HIRU zenbakiko gutun-azala), baldin eta, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta eta proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta, mahaiak uste badu kutsadura gerta daitekeela eta kutsadura horrek organo teknikoen beharrezko inpartzialtasunari eta objektibotasunari eragingo diola, baita tratu-berdintasunaren printzipioari ere.

AURRETIAZKO ESKAKIZUNEI ETA BALIO-IRITZIEN BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEEI BURUZKO GUTUN-AZALETAN EZ SARTZEA IRIZPIDEEKIN LOTUTAKO DATU, INFORMAZIO EDO DOKUMENTAZIORIK.

2) FORMULAK APLIKATUZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Irizpidea		Haztapena
1.-	**Prezioa**	51 puntu

PREZIOA (FORMULA):

Justifikazioa:

Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan erregistratuta – 1973 liburukia. 215 folioa. SS-21021 orria IFK. A20783023
Inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa – tomo 1973, folio 215, hoja SS-21021 CIF: A20783023

Aukeratutako formulak bidea ematen du beherapenak lau tarteren bidez doitzeko, kontuan hartuta kostuak aldez aurretik baloratu direla dagokion egikaritze-proiektuan eta, horrenbestez, lizitazioaren unean haiek merkatuko balioetara egokitzea falta dela (hori batez besteko beherapenaren bidez egingo da). Horregatik, lizitaziotik urruntzen diren eskaintzak zigortuko dira, bai lizitazio-tasara hurbiltzeagatik, bai tasa horretatik aldentzeagatik.

Tarte optimoan dauden eskaintzek puntuaziorik onena lortuko dute, gerora egikaritze-proiektuan definitutako exijentziei erantzungo dien egikaritze teknikorako egokitzat jotzen baitira.

Eskaintzarik onenak puntuazio maximoa jasoko du. Lizitazio-tasara egokitzen diren eskaintzek zero puntu jasoko dute. Gainerako eskaintzek interpolazio bidez jasoko dituzte puntuak, irizpide hauen arabera dagokion tartean:

Formularen deskribapena:

Eskaintza ekonomikoen puntuazioak, onartutako proposamenei dagozkienak, haien arabera kalkulatuko dira, interpolazio linealaren bidez, jarraian adierazten diren puntuek definitutako zuzenen arabera eta haiek mugatutako zuzen horren segmentuaren barruan:

BEHERAPENA	PUNTUAZIOA	
	IZENA	FORMULA
Beherapen maximoa (B_{MAX})	P_{MAX}	Puntuazio maximoa
Beherapen maximoaren eta batez besteko beherapenaren arteko beherapen distantziakidea	$P_{BEHERAPEN\ DISTANTZIAKIDEA}$	P_{MAX} x (100 – 0,05 x $B_{BATEZ\ BEST}$) / 100
Batez besteko beherapena ($B_{BATEZ\ BEST}$)	$P_{BATEZ\ BEST\ BEHERAPENA}$	$P_{BEHERAPEN\ DISTANTZIAKIDEA}$ x (100 – 0,1 x $B_{BATEZ\ BEST}$) / 100
Batez besteko beherapenaren % 50 (0,50 x $B_{BATEZ\ BEST}$)	$P_{BATEZ\ BEST\ BEHERAPENAREN\ \%\ 50}$	$P_{BATEZ\ BEST\ BEHERAPENA}$ x (100 – $B_{BATEZ\ BEST}$) / 100
Beherapena = 0 (lizitazio-tasa)		Zero puntuazioa

Formula horiek aplikatzeko, beherapen (B) da lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuarekin zatituta, ehunekotan adierazita.

$P_{BEHERAPEN\ DISTANTZIAKIDEA}$ beherapen maximoaren eta batez besteko beherapenaren arteko baja distantziakidearen puntuazioa da, eta $P_{BATEZ\ BEST\ BEHERAPENA}$ batez besteko beherapenaren puntuazioa da.

Eskaintzaren alderdi ekonomikoen azken balorazioa bigarren hamartarrera biribilduko da.

Eskaintza bat ezohiko edo neurriz kanpoko baliokotzat hartzeko parametroak

Hasiera batean, anormalki baxutzat joko dira onartutako eskaintzen prezio guztien batezbesteko aritmetikoa baino % 10 baxuagoak diren eskaintzak, eta halakotzat deklaratzeko, aldez aurretik enpresa lizitatzaile guztiei informazioa eskatu beharko zaie, baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

Eskaintza baliodun bakarra dagoen kasuetan, bere eskaintza ohi baino baxuagotzat jotzeko kontuan hartuko den parametro objektiboa hau izango da: lizitatzaileak aurkeztutako eskaintza baliodun bakarraren beherapena ekonomikoa % 25 edo txikiagoa izatea (lizitazioaren oinarrizko prezioarekiko balioa).

Berdinketa desegiteko irizpide espezifikoak

SPKLren 147.2 artikuluan jasotakoak.

Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan erregistratuta – 1973 liburukia. 215 folioa. SS-21021 orria IFK. A20783023
Inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa – tomo 1973, folio 215, hoja SS-21021 CIF: A20783023

22.- EGIKARITZE-BALDINTZA BEREZIAK
Kontratu honek lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak bete beharko ditu; bereziki, Gipuzkoan aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboaren une bakoitzean indarrean dagoen azken testua, bazter utzi gabe indarrean dauden eta bertan xedatutakoa hobetzen duten beste enpresa-hitzarmen edo -itun batzuk. Halaber, baldintza-agiri honen 39.2 klausulan jasotakoak bete beharko ditu.

23.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK
Kontratuaren funtsezko betebeharrak dira Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta klausula partikularren agiri honetan jasotakoak.

24.- AURREIKUSITAKO KONTRATU-ALDAKETAK
☐Bai ☒Ez Baiezkoan: Baldintza-agiri honen 44. atalean jasotakoak.

25.- ZIGORRAK
Baldintza-agiri honen 43. atalean jasotakoak.

26.- ASEGURUAK
Erantzukizun zibila. Baldintza-agiri honen 39.1.4 atalean jasotakoaren arabera.

27.- SUBROGAZIOA LAN-HARREMAN JAKIN BATZUETAN
☐Bai ☒Ez Baiezkoan:

28.- LIZITATZAILEENTZAKO KONPENTSAZIOAREN ZENBATEKOA
Kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea erabakiz gero, edota erabakitako prozeduran atzera eginez gero, kontratazio-organoak enpresa lizitatzaileei konpentsazioa emango die egindako gastuengatik, 1.000,00 €-ko gehieneko zenbatekoraino.

29.- PRESTAKETA-ERAGIKETEN ONDORIOZKO KONTURAKO ORDAINKETAK
☐Bai ☒Ez
Baiezkoan:

30.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA	
Tratamenduaren arduraduna:	BIDEGI SA
Datuak Babesteko ordezkaria (kontaktua):	dbo@bidegi.eus
Informazio gehiago:	

31.- BESTE ZEHAZTAPEN GEHIGARRI BATZUK
Ez daude aurreikusita.

32.- DIRULAGUNTZAK
Ez da aplikatzen.

Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan erregistratuta – 1973 liburukia. 215 folioa. SS-21021 orria IFK. A20783023
Inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa – tomo 1973, folio 215, hoja SS-21021 CIF: A20783023

33.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO MODUA ETA LEKUA	
Formatu elektronikoa	Ez da onartzen
Paper-formatua	BAI
Baldintza-agiriei buruzko kontsultak kontratatzailearen profilean, kontratazio-plataforman edo adm@bidegi.eus posta elektronikaren bidez egingo dira, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 48 ordu lehenago, eta kontratazio-plataforman erantzungo dira.	

34.- LIZITAZIO EZ-ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK
I. eranskinean jasotzen da.

35.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA
Proposamenak aurkezteko epea 40 egun naturalekoa izango da, lizitazio-iragarkia kontratazio-plataforman argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

36.- KONTRATAZIO-MAHAIA
LEHENDAKARITZA: BIDEGIKO USTIAPEN ARLOAREN ARDURADUNA 1. MAHAIKIDEA: BIDEGIKO AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN ARDURADUNA 2. MAHAIKIDEA: BIDEGIKO EKONOMIA ETA FINANTZA ARLOAREN ARDURADUNA 3. MAHAIKIDEA: BIDEGIKO TEKNIKARIA IDAZKARITZA

Bidegi SAko zuzendari nagusia

Gipuzkoako Arriaguren Agentzia
Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras
15373471H ALFREDO ETXEBERRIA (R: A20783023)
2026/10/30
NIF: A-20783023
Asti auzoa, 631 - A- 20800 Zarautz

Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan erregistratuta – 1973 liburukia. 215 folioa. SS-21021 orria IFK. A20783023
Inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa – tomo 1973, folio 215, hoja SS-21021 CIF: A20783023

2026JKIR0020

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK 1
1.- Kontratuaren xedea 1
2.- Ente kontratatzailea 1
3.- Kontratazio-organoa eta kontratua kudeatzen duen organoa 1
4.- Kontratuaren bidez ase beharreko beharrak 1
5.- Kontratuaren balio estimatua 2
6.- Kontratuaren prezioa 2
7.- Zerbitzuak emateko epea eta gauzatze-lekua 3
8.- Prezioak berrikustea 3
9.- Kontratuaren publizitatea 3
10.- Arlo hauei buruzko informazioa: zergak, ingurumena, emakumeen eta gizonen berdintasuna, hizkuntza-berdintasuna, enpleguaren babesa, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioa, eta datuen babesa. 3
11.- Kontratuaren araubide juridikoa 4
12.- Errekurtsoen araubidea 4
II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA 5
13.- Espediente mota eta lizitatzeko modua 5
14.- Parte hartzeko eta hautagaiak aukeratzeko eskabideak: 5
15.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak 6
16.- Behin-behineko bermea 7
17.- Proposamenak aurkeztea 7
18.- Lizitatzaileentzako informazioa 8
19.- Proposamenen edukia eta datuen tratamendua 8
20.- BAT zenbakiko GUTUN-AZALA: “PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA” 9
21.- BI zenbakiko gutun-azala: “BALIO-IRITZI BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” 10
22.- HIRU zenbakiko gutun-azala: “KOSTUEN ESTIMAZIOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” 11
23.- Aldaeren onargarritasuna 12
24.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak 12
25.- Kontratazio-mahaia 12
26.- Proposamenak irekitzea eta aztertzea 12
26.1.- BAT zenbakiko gutun-azala irekitzea, parte hartzeko eskaerak aurkeztea eta onartutako enpresak gonbidatzea 12
26.2.- BI zenbakiko gutun-azala irekitzea eta bere edukia aztertzea 13
26.3.- HIRU zenbakiko gutun-azala irekitzea eta aztertzea 13
26.4.- Kontratazio-mahaiaren aktak 13
27.- Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitza jendaurrean jartzea eta eragindako lizitatzaileei jakinaraztea 13
28.- Adjudikazio-irizpideak 14
29.- Eskaintzak baloratzea 14
30.- Eskaintzak argitzea 14
31.- Ohi baino balio baxuagoak dituzten eskaintzak 14
32.- Ondorengotza prozeduran 15

33.- Administrazioak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartzea eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea 15
34.- Adjudikazioa 15
34.1.- Eskaintzen sailkapena eta adjudikazio-proposamena 15
34.2.- Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak aldez aurreko baldintzak betetzearen egiaztagiriak aurkeztea 15
34.3.- Behin betiko bermea 16
34.4.- Adjudikazioa 17
34.5.- Adjudikazio-koefizientea 17
35.- Kontratua formalizatzea 18
III. KAPITULUA - KONTRATUA EGIKARITZEA 19
36.- Kontratuaren arduraduna 19
37.- Kontratistaren ondorengotza 20
38.- Kontratua lagatzea 20
39.- Enpresa kontratistaren baldintzak eta betebeharrak 20
39.1.- Baldintza orokorrak 20
39.2.- Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak 21
39.2.1.- Lan- eta gizarte-betebeharrak eta ingurumena babestekoak 21
39.2.2.- Kontratua egikaritzeari atxikitako langileen betebeharrak 22
39.2.3.- Subrogazio-kasuetako betebeharrak 22
39.2.4.- Egikaritzeko hizkuntza-betebeharrak 23
39.2.5.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko betebeharrak 23
39.2.6.- Azpikontratazio-kasuetako betebeharrak 24
39.2.7.- Laneko segurtasun eta osasunaren arloko betebeharrak 25
39.2.8.- Enpresa kontratistako langileekiko betebeharrak 27
39.3.- Informazioaren segurtasunaren arloko betebeharrak 28
39.4.- Baimenak eta lizentziak kudeatzeari buruzko betebeharrak 29
39.5.- Kontratistari exijitzekoak zaizkion gastuak 29
39.6.- Lan-programa 29
40. Berrikuntzarako elkartearen egitura 29
40.1.- Okerrak zuzentzea eta akatsak konpontzea 30
40.2.- Obrak gauzatzean izandako desbideratzeen ondoriozko kalte-ordainak eta proiektuaren huts edo akatsen ondoriozko erantzukizuna 30
41.- Herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzuak emateko kontratuen berezitasunak 31
42.- Jabetza intelektualaren eskubideak 31
43.- Berandutzearen ondoriozko zigorrak eta beste zigor batzuk 32
44.- Kontratuaren aldaketak 33
45.- Kontratistari ordaintzea 34
46.- Kontratua etetea 34
47.- Harrera eta bermealdia 34
47.1.- Harrera eta likidazioa 34
47.2.- Bermealdia 34
47.3.- Bermea itzultzea 35
48.- Kontratua suntsiaraztea 35
I. ERANSKINA.- LIZITAZIO EZ-ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK 37
LIZITAZIO-SISTEMA EZ-ELEKTRONIKOA 37

I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK 38

II. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA BETETZEKO JARRAIBIDEAK 39

III. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA 41

IV. ERANSKINA.- BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA DEKLARATZEKO EREDUA 43

V. ERANSKINA.- ENPRESA-TALDEARI BURUZKO DEKLARAZIOAREN EREDUA....44

VI. ERANSKINA.- KONFIDENTZIALTZAT JOTZEN DIREN AURKEZTUTAKO DOKUMENTU ETA DATUEN DEKLARAZIO OSAGARRIAREN EREDUA....45

VII. ERANSKINA.- ABAL-EREDUA 46

VIII. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA ETA FORMULEN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN ESKAINTZAREN BESTE ELEMENTUENA....47

IX. ERANSKINA.- Kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide-kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua DEKLARATZEKO EREDUA 49

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

1.- Kontratuaren xedea

1.- Kontratuaren xedea da Abiatu prototipo bat sortzea, denbora errealean audio-jakinarazpenak igortzeko aukera emango duena. Sortze-prozesuak bi mugarri partzial ditu, ezaugarrien taulako 3. atalean deskribatutakoak, hain zuzen. Elkartea ondoz ondoko etapetan egituratuko da, ikerketa- eta berrikuntza-prozesuaren sekuentziari jarraituz. Hala, tarteko helburuak finkatuko dira eta ordainsaria epe egokietan ematea aurreikusi da.

2.- Kontratuen hiztegi komuna (CPV) nomenklaturari dagokion kodifikazioa ezaugarrien taulako **4. atalean** agertzen da.

2.- Ente kontratatzailea

1.- Uztailaren 16ko 43/2002 Foru Dekretuaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren mandatari den “BIDEGI GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA – AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS SA” pertsona bakarreko sozietate publikoa (aurrerantzean, BIDEGI) eratu zen. Bidegiren xedea da, besteak beste, berak edo hirugarren batzuek proiektatzea, eraikitzea, artatzea, finantzatzea eta ustiatzea azpiegituren zati berriak, hobekuntzak, zabalkuntzak eta luzapenak, Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako mandatua ematen dionean.

2.- Uztailaren 43/2002 16 Foru Dekretuaren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiak BIDEGIri mandatua eman zionez berak edo hirugarren batzuek proiektatzea, eraikitzea, artatzea, finantzatzea eta ustiatzea AP-8 eta AP-1 autobideen Gipuzkoako tarteen eta ahalmen handiko beste autobide eta bide batzuen zati berriak, hobekuntzak, zabalkuntzak eta luzapenak, BIDEGI entitate kontratugiletzat agertzen da, eta berari dagokio baldintza-agiri honetan sustatzen den lizitazioa adjudikatzea.

3.- Kontratazio-organoa eta kontratua kudeatzen duen organoa

1.- Kontratatzeko eskumena Administrazio Kontseiluari edo zuzendari nagusiari dagokio, BIDEGI SAren Estatutuetako 33. eta 37. artikuluetan erregulatutakoaren arabera. Zuzendaritza Nagusiari egokituko zaio, xedea edozein dela ere, kontratuaren zenbatekoa 200.000 €-koa edo txikiagoa denean.

2.- Zenbatekoa dela-eta eskumena Administrazio Kontseiluari dagokionean, Administrazio Kontseiluak Zuzendaritza Nagusia eskuordetuko du, kontratua kudeatzen duen organoa den aldetik. Horri egokituko zaio adjudikazioari ekiteko behar diren tramiteak egitea eta bultzatzea eta, era berean, honako eginkizun hauek: nahitaezko txostenak eskatzea, kontratuaren kudeaketa egokiaren inguruko beharrezko erabakiak hartzea, eta, zehazki, kontratuaren zuzendaritzak proposatuta, egikaritzea luzatzea edo etetea erabakitzea, betiere baldintza-agiri honetan jasotako inguruabarrak eta kasuak gertatzen badira eta horrek kostu ekonomiko gehigarririk ez badakar.

Zuzendari nagusiak BIDEGI SAko sail teknikoen laguntza teknikoa eta juridikoa izango du. Sail horiek kontratua kudeatzen duen organoaren organo laguntzaile gisa osatuko dira.

Horrek guztiak ez die kalterik egingo 36. klausulan kontratuaren zuzendariaren figurarako jasotzen diren eskumenei.

4.- Kontratuaren bidez ase beharreko beharrak

Kontratu honen bidez, helburu hau duen sistema bat garatzeko beharra aseko da: bidesarien ekosistema eta BIDEGIk operatutako TAG ABIATU zabalduta gidariei intzidentziak (auto-ilarak, istripuak, obrak, etab.) ohartaraztea, Back Officetik zuzenean gidariei alerta-mezuak transmitituz audio-jakinarazpenen bidez. Behar horri ezin zaio erantzun merkatuan dagoeneko eskuragarri

dauden produktuak, zerbitzuak edo obrak eskuratuta, baizik eta berrikuntzarako elkarte baten esparruan soluzio berritzaileak garatuta, preskripzio teknikoen agirian deskribatzen denaren arabera.

Behar horiek behar bezala deskribatu dira PTAn.

Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa, SPKLren 100.2 artikuluaren arabera kalkulatua, ezaugarrien taulako **5. atalean** maximotzat adierazitakoa da, balio erantsiaren gaineko zerga barne.

5.- Kontratuaren balio estimatua

1.- Kontratuaren balio estimatua, SPKLren 101. artikuluaren arabera kalkulatua eta ezaugarrien taulako **6. atalean** jasoa, kontuan hartu da bai kontratu honi aplikatu beharreko adjudikazio-prozedura eta egingo zaion publizitatea aukeratzeko, bai pertsona fisiko eta juridiko lizitatzaileen (aurrerantzean, lizitatzaileak) gaitasun-baldintzak eta aplikatu beharreko errekurtsoen araubidea ezartzeko.

Balio estimatuan, elkartearen amaieran aurreikusitako I+G jardueren gehieneko zenbatekoa hartu da kontuan.

2.- SPKLren 101.5 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako **6. atalean** adierazten da kontratuaren balio estimatua zehazteko erabilitako metodoa.

6.- Kontratuaren prezioa

Berrikuntzarako elkarterako prozedura salbuespenezko kasuetako bat da. Izan ere, kasu honetan agerian geratzen da kontratua egikaritzen hasi behar dela prezioa zehaztu ahal baino lehen, ez bakarrik prestazioen konplexutasunagatik, baizik eta teknika berri bat erabiltzeko beharragatik. Horren ondorioz, ez dago informaziorik antzeko prestazioen kostuei buruz eta prezio jakin bat zehaztasunez negoziatzeko aukera emango duten elementu tekniko edo kontabilitatekoei buruz.

Behin-behineko prezioekin egindako kontratuetan, prezioa prezio maximorako ezarritako mugen barruan zehaztuko da, kontratistak izandako benetako kostuen eta adostutako mozkinaren arabera. Horretarako, nolanahi ere, kontratuan alderdi hauek zehaztuko dira:

- **a)** Behin betiko prezioa zehazteko prozedura, kostu efektiboei eta mozkina kalkulatzeko formulari dagokienez.
- **b)** Adjudikaziodunak prestazioen kostua zehazteko aplikatu beharko dituen kontabilitate-arauak.
- **c)** Adjudikatzaileak produkzio-kostuaren elementu teknikoen eta kontabilitatekoen gainean egin ahal izango dituen dokumentu-kontrolak eta produkzio-prozesuarekin lotutakoak.

Prozesu horretan, lizitatzailearen proposamenaren arabera kontratuari atxikitako langileen ordu kopurua eta dedikazioa kalkulatu beharko dira, eta fakturak edo erosketa-albaranak edo horien baliokideak aurkeztuta zehaztuko dira erabilitako materialaren kostuak.

Kontratazio-organoak aurkeztutako estimazioak % 13ko gastu orokorrak eta % 6ko mozkin industriala biltzen ditu.

Behin-behineko prezioekin egindako kontratuetan ezin izango dira prezioak berrikusi.

Debekatuta dago prezioaren ordainketa geroratua administrazio publikoen kontratuetan, salbu eta ordainketa-sistema finantza-errentamenduaren edo erosteko aukera ematen duen

errentamenduaren modalitatearen bidez ezartzen denean, baita lege honek edo beste batek berariaz baimentzen duen kasuetan ere.

Preskripzio Teknikoen Agiriaren hirugarren klausulan, fase bakoitzerako HIRUREHUN MILA (300.000) EUROKO zenbatekoa aurreikusten da. Banaketa hori fase bakoitzaren benetako kostuaren arabera aldatu ahal izango da, baina ezin izango da inola ere gainditu adjudikaziodunak eskainitako guztizko zenbatekoa.

7.- Zerbitzuak emateko epea eta gauzatze-lekua

1.- Gauzatze-epea ezaugarrien taulako **9. atalean** ezarritakoa izango da, edo enpresa adjudikaziodunak eskaintzen duena, lizitatzaileek epe osoa eta/edo epe partzialak murriztea proposa badezakete.

2.- Kontratua luzatu ahal izango da ezaugarrien taulako **10. atalean** hala aurreikusten bada, eta luzapena nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, SPKLren 29. artikuluan aurreikusitako terminoetan.

3.- Zerbitzuak leku jakin batean eman behar badira, ezaugarrien taulako **13. atalean** adieraziko da.

8.- Prezioak berrikustea

1.- Berrikusi behar izanez gero, ezaugarrien taulako **15. atalean** adieraziko da, eta aplikatzekoa den formula jasoko da bertan.

2.- Prezioak SPKLn ezarritakoaren arabera berrikusiko dira (103. artikulua eta hurrengoak).

9.- Kontratuaren publizitatea

1.- Kontratua adjudikatzeko lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

2.- Kontratatzailearen profilean kontratuaren lizitazioaren deialdiari buruzko informazioa emango da, administrazio-klausula partikularren agiria eta, hala badagokio, dokumentazio osagarria barne.

3.- Kontratu honi buruzko informazioa SPKLren 63. artikuluan ezarritakoaren arabera argitaratuko da kontratatzailearen profilean, eta ezaugarrien taulako **2. atalean** adierazitako helbide elektronikoan kontsultatu ahal izango da.

4.- Kontratuak erregulazio harmonizatukoak direnean, lizitazioa Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean ere argitaratuko da, SPKLren 135. artikuluaren arabera.

10.- Arlo hauei buruzko informazioa: zergak, ingurumena, emakumeen eta gizonen berdintasuna, hizkuntza-berdintasuna, enpleguaren babesa, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioa, eta datuen babesa.

Organismo hauetan, honako hauekin lotuta indarrean dauden betebehar eta xedapenei buruzko informazioa lor daiteke:

- Fiskalitatea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentua eta gainerako zerga-administrazioak.
- Enplegua babestea, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundea organismo autonomoa.
- Hizkuntza-berdintasuna: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
- Ingurumenaren babesa: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. IHOBE SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

- Datu pertsonalen babesa: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

11.- Kontratuaren araubide juridikoa

1.- Zerbitzu-kontratu honek izaera juridiko pribatua du, SPKLren 26. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.- Alderdiek berariaz bete beharko dute baldintza-agiri honetan eta bere preskripzio tekniko partikularren agirian ezarritakoa. Beraz, baldintza-agiri honek eta erantsitako gainerako dokumentuek kontratu-izaera edukiko dute, eta adjudikaziodunak sinatu beharko ditu, ados dagoela adierazteko, kontratua formalizatzeko egintzan bertan.

3.- Baldintza-agiri hau eta gainerako kontratu-agiriak bat ez badatoz, baldintza-agiri honek izango du lehentasuna.

4.- Baldintza-agirietan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek arautuko dute kontratua:

a) Kontratua prestatzeari eta adjudikatzeari dagokionez: SPKL; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (APKLEO). Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan (apirilaren 7ko 3/2016 Legea, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzekoa) nahiz Gipuzkoako Foru Aldundian kontratazioa erregulatzen duten eta aplikatzekoak diren beste edozein xedapenen bidez arautuko da.

   Osagarri gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

b) Ondorioei eta azkentzeari dagokienez: zuzenbide pribatuko arauak eta 319. artikuluko lehen paragrafoko arauak, ingurumenari, gizarteari edo lanari, kontratua egikaritzeko baldintza bereziei, kontratua aldatzeari, lagatzeari eta azpikontratatzeari, eta kontratazioa teknikoki arrazionalizatzeari buruzkoak; eta kontratua suntsiarazteko kausa, prestazioa hasieran itundutako baldintzetan egiteko ezintasunarekin lotuta, baldin eta kontratua ezin bada aldatu SPKLren 204. eta 205. artikuluen arabera.

5.- Kontratuaren klausulak (edozein izanik ere horien edukia), klausularen parte diren gainerako kontratu-agiriak eta hitzartutako gauzaren egikaritzean aplikatu beharreko jarraibideak edo araudia ez ezagutzeak ez du adjudikazioduna salbuesten horiek betetzeko betebeharretik.

12.- Errekurtsoen araubidea

1.- Administrazioarekiko auzien ordenari dagokio kontratuak prestatzeari, adjudikatzeari eta aldatzeari buruz sortzen diren arazoak aztertzea, baldin eta horien aurkaratzea SPKLren 204. eta 205. artikuluak ez betetzean oinarritzen bada, aldaketa dela-eta beste adjudikazio bat egin beharra zegoela ulertuta.

2.- Jurisdikzio zibilak izango du kontratuaren ondorioez eta azkentzeaz arduratzeko eskumena.

3.- Baldintza-agiri honen eta preskripzio teknikoen agiriaren aurka, nahi izanez gero, SPKLren 44. artikuluan aurreikusitako errekurtso berezia aurkez daiteke, baldin eta kontratuaren balio estimatua 100.000 eurokoa baino handiagoa bada.

Era berean, jarduketa hauek errekurritu ahal izango dira:

a) Lizitazio-iragarkiak eta kontratazioa erregulatu behar duten baldintzak ezartzen dituzten gainerako kontratu-dokumentuak.

b) Adjudikazio-prozeduran hartutako tramite-egintzak, baldin eta horietan zuzenean edo zeharka adjudikazioari buruz erabakitzen bada, prozedurarekin jarraitzeko ezintasuna eragiten badute edo defentsa-gabezia edo bidezko eskubide edo interesei kalte konponezina eragiten badiete. Nolanahi ere, ulertuko da mahaian edo kontratazio-organoan izangaiak onartzea edo ez onartzea, edo eskaintzak onartzea edo baztertzea erabakitzen duten egintzetan aurreko inguruabarrak gertatzen direla, SPKLren 149.

artikulua aplikatzearen ondorioz anormalki baxuak izateagatik baztertzen diren eskaintzak barne.

c) Adjudikazio-erabakiak.

d) SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea oinarritzat daukaten aldaketak, horiek direla-eta beste adjudikazio bat egin beharra zegoela ulertuta.

SPKLren 51. artikuluan xedatutakoaren arabera, errekurtsoa kontratazio-organoaren erregistroan, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboaren erregistroan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako lekuetan aurkeztu beharko da, hamabost egun balioduneko epean, SPKLren 50. artikuluan aurreikusitako terminoetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, errekurtsoa SPKLren 39. artikuluaren 2. apartatuaren c), d), e) edo f) letretan aurreikusitako deuseztasun-kausen batean oinarritzen denean, SPKLren 50.2 artikuluan aurreikusitako errekurtsoa jartzeko epeak hartuko dira kontuan.

Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa erregulatzen duen uztailaren 29/1998 13 Legean aurreikusitako moduan, bi hilabeteko epean.

4.- Errekurtso berezia jartzeko baldintzak betetzen ez dituzten egintzak administrazio-bidean aurkaratuko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, entitate kontratatzailea atxikita dagoen edo haren tutoretza duen sail, organo, ente edo organismoaren titularraren aurrean.

II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA

13.- Espediente mota eta lizitatzeko modua

1.- Kontratazio-espedientea **berrikuntzarako elkarterako prozeduraren** bidez tramitatzen da, ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitako tramitazio arruntarekin. Prozedura fase hauetan egituratzen da:

a) 1. fasea: parte hartzeko eskabideak aurkeztea eta hautagaiak aukeratzea.

b) 2. fasea: aukeratutako hautagaiei gonbidapena egitea ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak aurkezteko eta elkartearen eskaintzaren aldeko adjudikazioa egitea, kalitate-prezio erlazio hoberena jasotzen duen eskaintzan oinarrituta, 145.2 artikuluan jasotzen denez.

2.- Kontratazio-espedientea ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitako prozeduraren eta tramitazioaren bidez egiten da.

Aldaerak onartuz gero, lizitatzaileek alternatibak eskaini ahal izango dituzte, ezaugarrien taulako **14. atalean** ezarritako moduan eta preskripzio tekniko partikularren agirian ezarritako eta atal horretan laburtutako baldintza, modalitate eta ezaugarri teknikoekin.

14.- Parte hartzeko eta hautagaiak aukeratzeko eskabideak:

I. FASEA: parte hartzeko eskabideak aurkeztea

1.- Interesa duen edozein enpresak aurkeztu ahal izango du parte hartzeko eskabidea (1. gutun-azala), lizitazio-iragarkiari erantzunez, ezaugarrien taulako 16. klausulan eskatzen diren kaudimen-irizpideei buruzko informazioa aurkeztuta.

2.- Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea ezaugarrien taulako 35. klausulan adierazitakoa izango da, eta legez exijitzekoak diren gutxieneko epeak errespetatuko dira betiere.

3.- Kontratazio-mahaiak, aurkeztutako dokumentazioa ikusita, hautagaiak aukeratuko ditu kaudimen-irizpide objektiboak aplikatuta, zehazki, ikerketaren eta garapenaren esparruetan duten gaitasunari buruzkoak, baita soluzio berritzaileak landu eta aplikatzeari buruzkoak ere.

4.- Gehienez hiru hautagai gonbidatu ahalko dira, aukeraketa-irizpideak betetzen dituzten hautagaien kopurua txikiagoa denean izan ezik. Halakoetan, exijitutako baldintzak betetzen dituztenekin jarraitu ahal izango du prozedurak.

II. FASEA: eskaintzak aurkeztea eta adjudikazioa

1.- Aukeratutako hautagaiak aldi berean eta idatziz gonbidatuko dira beren ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak aurkeztera, karatulako 3. klausulan eta preskripzio teknikoen agirian deskribatutako beharrei erantzuteko.

2.- Aurkeztutako eskaintzak behin betikoak izango dira, eta ez da faseka negoziatzeko prozesurik egingo, prestazioaren beraren izaera dela-eta, espedientean justifikatzen denez.

3.- Lizitatzaileek 2 eta 3 gisa zenbakitutako bi gutun-azal independentetan jasoko dituzte beren eskaintzak.

2. gutun-azalean, proposatutako helburua lortzera bideratutako prozedura edo proiektua zehaztuko duen proposamena sartuko da, eta edukiak 1. etapa eta 2. etapa bereizi beharko ditu.

3. gutun-azalean, 2. gutun-azalean barne hartutako jarduketen kostu bat jaso beharko da, eta kostu horrek ezingo du inola ere lizitazioaren kostua gainditu.

Banakatzeak lizitatzaileak eskainitako mozkin industriala jaso beharko du.

4.- Hautatutako lizitatzaileek 2. gutun-azalean aurkeztutako eskaintzak BIDEGI SAren sail teknikoak aztertuko ditu. Sail horrek eskaintza ebaluatuko du karatulan jasotako irizpideetan eta balio-iritzien bidez baloratuko irizpideetan oinarrituta.

Balorazioa amaitutakoan, lizitatzaileek lortutako puntuazioak argitaratuko dira, eta 3. gutun-azala irekitzeko data ezarriko da.

5. Behin 3. gutun-azala irekitzeko ekitaldia amaituta, aurkeztutako eskaintzak sailkatuko ditu kontratazio-mahaiak, handienetik txikienera, eta, ondoren, dagokion proposamena aurkeztuko dio kontratazio-organoari.

6.- Berrikuntzarako elkartearen aldeko adjudikazioa kalitate-prezio erlazio hoberenean oinarrituta egingo da beti, ezaugarrien taulan ezarritako irizpide eta haztapenekin bat etorriz.

15.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak

1.- Entitate kontratatzailearekin kontratatu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerritarrek, kontratatzeko debekuaren kausaren batean sartuta ez daudenek, eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzen dutenek.

Parte hartzeko eskabideen fasean, enpresak hautagai izango dira; proiektuak eta eskaintzak aurkezteko fasean, gonbidatutako hautagaiak lizitatzaile izango dira.

Aplikatzekoa den araudiak horrela zehaztu duelako lizitatzaileari zenbait baldintza eskatzen zaizkionean —bere antolamenduari, etekinen zertarakoari, finantzaketa-sistemari edo bestelakoei buruz— kasuko adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko, lizitatzaileak egiaztatu egin beharko du betetzen dituela, lehiatu ahal izateko.

2.- Aurreko paragrafoan aipatzen diren kontratatzeko gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ezari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, eta ordutik kontratua burutu arte.

3.- Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak egiteko exiji daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki beharko dute.

4.- Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik adjudikatuko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-eremua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

5.- Era berean, entitate kontratatzaileak aldi baterako eratzen diren enpresa-elkarteekin kontratatu ahal izango du, eta ez da beharrezkoa izango horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua bere alde adjudikatu arte.

Elkarteen osaera aldatuz gero, eta kontratua formalizatu aurretik eta ondoren aldaketarik baldin badago, SPKLren 69. artikuluaren 8. apartatuan eta hurrengoetan xedatutakoa beteko da. Ondore horietarako, enpresak kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio gertatutako inguruabarra.

6.- Europar Batasuneko enpresei edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatutakoei dagokienez, SPKLren 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

16.- Behin-behineko bermea

1.- SPKLren 106. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, salbuespen gisa, interes publikoko arrazoiengatik eta espedientean justifikatuz gero, kontratu honetarako behin-behineko berme bat eratzea eskatzen bada, horren zenbatekoa ezaugarrien taulako **20. atalean** agertzen dena izango da.

2.- Bermeen forma eta baldintzei dagokienez, SPKLren 106.3 eta 108.1 artikuluetan aurreikusitakoa beteko da, baita APKLEOren 55., 56., 57. eta 58. artikuluetan xedatutakoa ere.

3.- Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta kontratua burutu eta berehala itzuliko zaie lizitatzaileei.

17.- Proposamenak aurkeztea

1.- Espedientearen justifikazio-memorian jasotzen denez, kontratazioa.euskadi.eus plataformak ez du prozedura hori inplementatuta; beraz, plataforma horretatik kanpo egin beharko da. www.contratacion.euskadi.eus plataformaren bidez egingo den tramite bakarra lizitazioari publizitatea ematea izango da, horren oinarri diren baldintza-agiriak argitaratuta. Horrela, interesa duen orok aukera izango du horiek deskargatzeko eta lizitazioan parte hartu ahal izateko erregulatutako prozedurari jarraitzeko.

2.- Parte hartzeko eskaera ezaugarrien taulako **35. paragrafoan** adierazitako epean aurkeztea, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean edo Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erregulazio harmonizatuko kontratuetarako.

2.- Dokumentazioaren eta jakinarazpen eta komunikazioen bidalketa baldintza-agiri honen **I. eranskinean** jasotakora egokituko dira.

3.- **Lizitazioan parte hartzeko eskabidea gutun-azal itxian edo lakratuan aurkeztu beharko da BIDEGI SAren bulegoetan, eta 20. klausulan zehaztutako edukia jaso eta bertan adierazten den bezala identifikatu egon beharko du**.

4. Prozeduran parte hartuko duten enpresak hautatu ondoren, kontratazio-mahaiak enpresa horiei eskatuko die BIDEGIren bulegoetan aurkez ditzatela eskaintzak gutun-azal lakratuetan. Komunikazioa plataformaren bidez egingo da eta aurkezteko epea finkatuko du.

5. Lizitatzaileek gutun-azal bat aurkeztuko dute eskaintza teknikoarekin, eta beste gutun-azal independente batean proiektuaren kostu estimatuak aurkeztuko dituzte, mozkin industriala barne.

Bi gutun-azalak baldintza-agiri honen 21. eta 22. klausuletan jasotzen den bezala izendatuko dira.

6.- Bi gutun-azalak jendaurrean irekiko dira eta irekiera streaming bidez emango da. Lizitatzaileek BIDEGIk emango dien estekaren bidez jarraitu ahal izango dute irekiera, edo aurrez aurre, enpresa publikoak Zarautzen dituen bulegoetan.

7.- Proposamenak isilpekoak izango dira, eta, horretarako, lizitazio publikoa egin arte halakoak izango direla bermatuko duten baliabideak jarriko dira.

18.- Lizitatzaileentzako informazioa

1.- SPKLren 138.3 artikuluan aipatzen den informazio gehigarria edo osagarria eman behar denean, entitate kontratatzaileak informazio hori eman beharko du, eskaintzak aurkezteko ezarritako muga-eguna baino hiru egun natural lehenago gehienez ere, baldin eta eskaera egun hori baino gutxienez hiru egun natural lehenago aurkezten bada. Eskaera hori lizitazio-iragarkian eta ezaugarri-taulako **1. atalean** aurreikusitako helbide elektronikoan egingo da.

2.- Presakotzat jotako espedienteetan, epea lau egun naturalekoa izango da gehienez ere, erregulazio harmonizatuko kontratuetarako eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino lehen.

3.- Argibideak kontratatzailearen profilean argitaratzen badira, erantzunak lotesleak izango dira.

19.- Proposamenen edukia eta datuen tratamendua

1.- Proposamenak behar bezala itxitako edo lakratutako gutun-azaletan aurkeztuko ditu lizitatzaileak edo haren ordezkariak, hurrengo klausuletan adierazitako proposamenen isilpekotasuna bermatzeko.

2.- Gutun-azal bakoitzaren barruan, aparteko dokumentu batean jasoko da edukia, zenbakiz adierazita (APKLEOren 80.1 artikulua).

3.- Pertsona fisikoen datuak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betez, lizitatzaileei jakinarazten zaie beren eskaintza edo parte hartzeko eskabidea aurkeztuta eta kontratazioa egiteko behar den gainerako dokumentazioa aurkeztuta jasotzen diren datu pertsonalak entitate kontratatzaile honek tratatuko dituela, kontratuaren garapena behar bezala mantentzen, betetzen eta kontrolatzen dela bermatzeko, eta “Kontratazio-espedientea” izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla.

Era berean, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 13. artikuluan xedatutakoa betez, honako hau jakinarazten da:

a) Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna ezaugarrien taulako **30. atalean** adierazitakoa da.
b) Datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango dira, ezaugarrien taulako **30. atalean** adierazitako helbide elektronikoan.
c) Ematen diren datu pertsonalak beharrezkoak dira kontratazio-espedienteak tramitatu eta kudeatzeko, entitate kontratatzailearen eskumenen esparruan.
d) Tratamendua zilegi da, beharrezkoa baita interesdunak parte hartzen duen kontratu bat egikaritzeko, edo hark eskatuta kontratu aurreko neurriak aplikatzeko, baita interes publikoaren alde egindako misio bat betetzeko ere, DBEOren 6.1 artikuluaren arabera.
e) Ez dago aurreikusita datuak hirugarrenei lagatzea edo jakinaraztea, legez ezarrita dauden eta tratamendu honen esparruan aplikatzekoak diren betebeharrak aplikatzean izan ezik (organo fiskalizatzaileak, beste interesdun batzuk).
f) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, tratamendua mugatzeko edo horren aurka egiteko eskubideak balia daitezke, baita eramangarritasun-eskubideak eta tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabakien xede ez izateko eskubideak ere.

g) Ematen diren datu pertsonalak bildu ziren xedea betetzeko eta sor litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko dira.

20.- BAT zenbakiko GUTUN-AZALA: "PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA"

1.- "PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA" izeneko gutun-azal honetan, jarraian zerrendatzen diren dokumentuak sartu beharko dira, baita horiek guztiak zerrendatuko dituen aurkibide bat ere.

1. **Jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko datuak,** I. eranskineko **Gehigarria** ereduaren arabera.
2. **Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) eta lizitazioan parte hartzeko baldintzen egiaztagiriak.**

2.1 **EKAB.** Kontratatzeko debekuei buruzko 71., 72. eta 73. artikuluetan erregulatutakoa betetzeko baino ez da aurkeztuko dokumentu hau. **Dokumentu hau aurkezteak ez du inola ere ordezten baldintza-agiri honen karatulako 16.2 klausulan exijitutako dokumentazioa aurkezteko betebeharra.**

Erantzukizunpeko deklarazioa **II. eranskinean** jasotako jarraibideen arabera beteko da, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta, eta bertan adierazten den formulario-ereduaren arabera.

2.2) OBU, TAG, DSRC edo antzekoen **produktore izatea egiaztatzeko aukera emango duen zinpeko deklarazioa**. Horretarako, ordainbidea zein bezerori hornitzen dien identifikatu beharko du deklarazioak, baita gailuak fabrikatzeko instalazioa edo instalazioak non kokatuta dauden ere.

2.3) Produzitzen dituen gailuen homologazioa egiaztatuko duten EB ziurtagiriak.

2.4) Garapen teknologikorako sail edo atal bat dagoela egiaztatzea ahalbidetuko duen zinpeko deklarazioa. Horretarako, atal edo sail horretako langileak identifikatu beharko ditu, baita horiek zein eginkizun betetzen dituzten, sail horrek zer egitura duen eta berezko garrantzia duen edo beste sail batean sartuta dagoen ere.

Dokumentazio hori jasotzen ez bada, kontratazio-mahaiak uko egingo dio aurkeztutako eskabideari, eta enpresak ezin izango du parte hartzeko prozesuan esku hartu.

3. **Aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio**. Bi enpresa edo gehiago aldi baterako elkarte bat osatuz lizitazio batera aurkezten direnean, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute, eta bertan adierazi beharko dituzte hura sinatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak, enpresa bakoitzak duen partaidetza, eta, adjudikaziodun izanez gero, aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela (SPKLren 69. artikulua eta APKLEOren 24. artikulua). Dokumentu hori elkartea osatzen duten enpresetako bakoitzaren ordezkaritza dutenek sinatu beharko dute. Halakoetan, enpresa bakoitzak bere EKAB dokumentua aurkeztu beharko du. Agiri honen **III. eranskinean**, aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoaren eredua sartu da.
4. **Erantzukizunpeko deklarazioa, kontratua egikaritzeko giza baliabideak eta baliabide materialak** ezaugarrien taulako **17. atalean** adierazitako profilekin eta zehaztapenekin **atxikitzeari buruzkoa**. Baldintza-agiri honen **IV. eranskinean** dago eredua.
5. **Enpresa lizitatzailearen berariazko erantzukizunpeko deklarazioa**, kide den enpresa-taldeari buruzkoa eta talde bereko sozietate guztiak bilduko dituena, Merkataritza

Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzetan. Enpresa-talde bateko kide ez bada, ildo horretatik egingo da deklarazioa. Baldintza-agiri honen **V. eranskinean** dago eredua.

6. **Lizitatzaileen dokumentuen eta datuen deklarazio konfidentziala**. Enpresa lizitatzaileek adierazi beharko dute, hala badagokio, zein dokumentu administratibo eta tekniko eta datu hartu behar diren konfidentzialtzat beren ustez. Inguruabar hori halakotzat adierazita jaso beharko da dokumentuan (gaininprimatuta, bereiz edo beste edonola). Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentu eta datuak isilpekotzat jo daitezke, baldin eta hirugarren pertsona edo entitate batzuengana hedatzea horien merkataritza-interes legitimoen aurkakoa izan badaiteke edo enpresen arteko lehia leialari kalte egin badiezaioke. Deklarazio hori betetzen ez bada, ulertuko da ezein dokumentu edo datuk ez duela izaera hori. Baldintza-agiri honen **VI. eranskinean** dago eredua.
7. **Behin-behineko bermearen egiaztagiria, hala badagokio (ikus abalaren eredua VII. eranskinean).** Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, behin-behineko bermeak enpresa parte-hartzaile batek edo gehiagok eratu ahal izango dituzte, baldin eta, oro har, ezaugarrien taulako **20. atalean** eskatutako zenbatekora iristen badira eta aldi baterako elkartea osatzen duten kide guztiak solidarioki bermatzen badira.
8. **Atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioaren berezitasunak**. Atzerriko lizitatzaile guztiek, aurreko b) letran aipatutako erantzukizunpeko deklarazioaz gain, **edozein mailatako Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzearen deklarazioa** aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen intzidentzia guztietarako, eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo diote —SPKLren 140.1.f) artikulua—.

   Europar Batasuneko kide ez diren edo Europako Esparru Bakarrari buruzko Akordioa sinatu ez duten estatuetako enpresek, gainera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

   - Enpresaren egoitzako lekuan Espainiak duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo bulego kontsularrak emandako **txostena**, non jasoko baita, enpresak egiaztatu ondoren, tokiko lanbide-erregistroan, merkataritza-erregistroan edo antzekoan inskribatuta dagoela, edo, halakorik ezean, kontratuaren xedeak hartzen dituen jardueren esparruan tokiko trafikoan diharduela.
   - SPKLren 68. artikuluak aipatzen duen **elkarrekikotasun-txostena**, erregulazio harmonizatuko kontratuen kasuan izan ezik; kasu horretan, Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren edo Ekonomia Ministerioaren Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren txosten batekin ordeztuko da, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatu izateari buruzko txostenarekin, hain zuzen.
9. Gipuzkoako Foru Administrazioaren kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide-kodea eta integritate instituzionalaren esparrua betetzeari buruzko deklarazioa. Deklarazio horrek baldintza-agiri honen **IX. eranskinean** atxikitako eredura egokitu beharko du.

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak edonoiz eskatu ahal izango dute lizitatzaileek betetzen dituztela erantzukizunez deklaratutako baldintzak betetzearen justifikazio dokumentala.

Lizitatzaileak gehienez ere bost egun balioduneko epean aurkeztu beharko du eskatutako dokumentazioa, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Errekerimendua adierazitako epean behar bezala beteko ez balitz, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da eta prozeduratik kanpo geratuko da.

21.- BI zenbakiko gutun-azala: “BALIO-IRITZI BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA”

1.- Ezaugarrien taulako **21. atalean** balio-iritziaren bidez baloratu beharreko adjudikazio-irizpideak, aldez aurretik ebaluatu beharrekoak, sartu badira, lizitatzaileak BI zenbakiko gutun-azal bat aurkeztu beharko du, “BALIO-IRITZI BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” izenburua izango duena. Gutun-azal horretan, kontratazio-organoak

adierazitako beharrei erantzutera bideratutako ikerketa- eta berrikuntza-proiektua aurkeztu beharko da; zehazki, dauden soluzioekin eta proiektu horri dagokion eskaintza ekonomikoarekin bete ezin diren beharrei erantzutera bideratutakoa.

BIDEGIk dokumentazio hori eskatuko die hautatutako enpresei, 1. GUTUN-AZALEAN aurkeztutako dokumentazioa ebaluatu ondoren eta kontratu hau egikaritzeko exijitzen diren eta beharrezkoak diren kaudimen-irizpideak betetzen direla egiaztatu ondoren (baldintza-agiri honen karatulako 20. klausulan eta 16. atalean daude jasota).

2.- Gutun-azal honetan ezin izango da inola ere sartu HIRU zenbakiko gutun-azalari dagokion informaziorik.

3.- Era berean, lizitatzaileak bestelako zeinahi dokumentu aurkeztu beharko du, baldin eta preskripzio teknikoen agirian berariaz adierazten bada eta aukera ematen badu egiaztatzeko eskaintzak bete egiten dituela eskatutako zehaztapen teknikoak, dokumentu hori baloratuko ez bada ere.

22.- HIRU zenbakiko gutun-azala: “KOSTUEN ESTIMAZIOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA”

1.- Gutun-azal honetan kostu ekonomikoak sartu beharko dira, mozkin industriala eta zeharkako kostu ekonomikoak barne.

2.- **Proposamenek, behin-behinean bada ere, adjudikazio-preziotzat hartuko den prezioa eskaini beharko dute. Beraz, banakatzetik ondorioztatu beharko da, inolako eragiketa matematikorik egin beharrik gabe, lizitatzaileek eskainitako kostua zein den.** Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoek, partida independente gisa, balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa adierazi beharko dute, hura jasanarazi behar bada.

Bai eskaintza ekonomikoa, bai gutun-azal honetan jasotako gainerako dokumentazioa, ezaugarrien taulako **21. atalean** adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko dira.

3.- **SPKLren 102.7 artikuluak jasotzen duenez, lizitazioaren oinarrizko prezioa behin-behinekoa bada ere, horrek ez du eragozten prezioa egiazkoa izatea; horregatik, ezein proposamenek ezin izango ditu gainditu baldintza-agiri honen karatulako bosgarren (5.) klausulan ezarritako mugak**. Proposamenaren zenbatekoan akats nabarmenen bat badago, edo enpresa lizitatzaileak onartzen badu proposamena bideraezina egingo duen akatsa edo funtsik eza duela, kontratazio-mahaiak baztertu egingo du proposamen hori, ebazpen arrazoituaren bidez. Aldiz, ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, baldin eta batek edo besteak ez badute ereduaren zentzua aldatzen, ez da nahikoa arrazoi izango proposamena baztertzeko.

4.- Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, SPKLren 142. artikuluan aldaeren onargarritasunari buruz xedatutakoari kalterik egin gabe. Era berean, ezin izango du proposamenik izenpetu beste enpresa batzuekin aldi baterako elkartuta, indibidualki aurkeztu bada, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertu ere. Printzipio hori urratuz gero, aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak ezetsiko dira.

5.- Proposamena aldi baterako enpresa-elkarte batek egiten duenean, elkartea osatzen duten guztiek proposamena sinatu beharko dute zuzenean edo ordezkari baten bidez.

6.- Ezaugarrien taulako **14. atalean** aldaerak aurkezteko baimena ematen duenean, oinarriari dagokion eskaintza ekonomikoaz gain, aldaera bakoitzeko eskaintza ekonomiko bat ere sartu ahal izango da gutun-azal honetan. Aldaera bakoitzari dagokion eskaintza ekonomikoa baldintza-agiri honen **VIII. eranskinean** agertzen den ereduaren arabera egingo da, eta atal horretan adierazitako kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu.

23.- Aldaeren onargarritasuna

1.- Aldaerak onartuz gero, lizitatzaile bakoitzak aurkezten duen proposamen bakarrak kontratuaren xedeari buruz egoki iritzitako soluzio guztiak jaso ahal izango ditu, preskripzio tekniko partikularren agirian finkatutako eskakizun, modalitate eta ezaugarri teknikoekin, ezaugarrien taulako **14. atalean** laburbilduta. Aldaerak ezaugarrien taulako atal berean ezarritako moduan aurkeztuko dira, eta ezingo dute kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditu.

2.- Nolanahi ere, enpresa lizitatzaileentzat nahitaezkoa izango da proposamen bat egitea eskatutako oinarrizko zerbitzua emateari buruz soil-soilik eta hitzez hitz. Proposamen horretan jasotako prestazioa emateko epea eta prezioa ezaugarrien taulan jasotakoak edo txikiagoak izango dira, eta zehatz-mehatz bat etorri beharko dute aurkezten duten lan-programan agertzen direnekin.

24.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak

1.- Proposamenak aurkezteak berekin dakar enpresa lizitatzaileak baldintza-agiri honetako klausulak eta preskripzio teknikoen agiria baldintzarik gabe onartzea, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Baldintza-agiriei men ez egiteak eskaintza baztertzea dakar nahitaez.

2.- Lizitatzaileek ezin izango dute beren proposamena erretiratu hamabost egun naturaleko epean, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita, adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa izan denean, edo bi hilabeteko epean, kontratua adjudikatzeko beste irizpide batzuk kontuan hartu direnean, SPKLren 158.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Epe hori hamabost egun baliodunez luzatuko da SPKLren 149. artikuluak, eskaintza nabarmenki baxuei buruzkoak, aipatzen dituen tramiteak bete behar direnean.

3.- Proposamen bat bidegabe erretiratzeak eragotzi egingo dio lizitatzaileari sektore publikoarekin kontratatzea, SPKLren 71.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, aldi berean, behin-behineko bermea konfiskatzea ekarriko du, SPKLren 106.1 artikuluaren arabera, berme hori exijitu balitz.

25.- Kontratazio-mahaia

1.- Kontratazio-mahaia izango da eskaintzak baloratzeko eskumena izango duen organo teknikoa, eta SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo du, baita maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. eta 22. artikuluen arabera ere (artikulu horiek haren osaera eta eginkizunak garatzen dituzte).

2.- Ezaugarrien taulako **36. atalean** jasotzen da haren osaera, eta kontratatzailearen profilaren bidez argitaratuko da, lizitazio-iragarkiarekin batera, edo, bestela, eratu aurretik betiere, profil horretan jarritako iragarki espezifiko baten bidez.

26.- Proposamenak irekitzea eta aztertzea

26.1.- BAT zenbakiko gutun-azala irekitzea, parte hartzeko eskaerak aurkeztea eta onartutako enpresak gonbidatzea

1.- Parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea amaituta, lizitatzaileek BAT zenbakiko gutun-azalean garaiz eta eraz aurkeztutako administrazio-dokumentazioa ireki eta kalifikatuko du kontratazio-mahaiak. Mahaiak ikusiko balu zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak daudela aurkeztutako dokumentazioan, interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez ere hiru egun naturaleko epea emango die haiek zuzentzeko edo zuzentzeko. Era berean, mahaiak lizitatzaileei eskatu ahal izango die dagoeneko aurkeztutako dokumentazioaren l-dokumentazio osagarria edo argigarria aurkezteko, eta bost egun naturaleko epea emango die horretarako.

2.- Interesdunei bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaie.

3.- Azkenik, kontratazio-mahaiak berrikuntzarako elkarterako prozeduran parte hartzera zein lizitatzaile gonbidatuta dauden zehaztuko du, baita, hala badagokio, zein baztertu diren eta baztertze horren kausak zein diren ere.

26.2.- BI zenbakiko gutun-azala irekitzea eta bere edukia aztertzea

1.- Lizitazioan parte hartzera gonbidatutako enpresen kasuan, kontratazio-mahaiak eskaintza teknikoa aurkezteko epea jakinaraziko du. Eskaintza teknikoa BIDEGI SAren bulegoetan aurkeztu beharko da. Eskaintzak jaso ondoren, BI zenbakiko gutun-azala irekiko da.

Ekitaldi publikoan irekiko da, eta, horretarako, kontratazio-mahaiak irekiera-eguna eta -ordua jakinaraziko dizkie parte-hartzaileei, baita esteka bat ere, ekitaldira streaming bidez edo aurrez aurre sartu ahal izateko. Gutun-azala ireki ondoren, sail tekniko eskudunak edukia aztertuko du, berori ezaugarrien taulako **21. atalean** adierazitako irizpideen arabera ebaluatzeko.

2.- Proposamenen kalifikazioari buruzko mahaiaren berariazko adierazpen batekin hasiko da egintza hori. Adierazpen horretan, lizitaziorako gonbidatutako enpresak, baztertutakoak eta baztertzearen kausak identifikatuko dira.

3.- Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira exijitutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta BI zenbakiko gutun-azalean sartzen dutenak formulak aplikatuz ebaluatu beharreko dokumentazioa (HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa).

26.3.- HIRU zenbakiko gutun-azala irekitzea eta aztertzea

1.- HIRU zenbakiko gutun-azala ekitaldi publikoan irekiko da, eta, horretarako, kontratazio-mahaiak irekiera-eguna eta -ordua jakinaraziko dizkie parte-hartzaileei, baita esteka bat ere, ekitaldira streaming bidez edo BIDEGIren bulegoetan aurrez aurre sartu ahal izateko.

2.- HIRU zenbakiko gutun-azalak jendaurrean irekitzean, BI zenbakiko gutun-azalik ez dagoenean, mahaiak proposamenak kalifikatzeari buruzko berariazko adierazpena egingo du, lizitaziorako onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzearen arrazoiak identifikatzeko.

3.- Balio-iritzien bidez ebaluatzen diren irizpideak badaude, ekitaldi honetan jakinaraziko da ebaluazio horren emaitza.

4.- Ondoren, kontratazio-mahaiak onartutako lizitatzaileen HIRU zenbakiko gutun-azala irekiko du, eta eskaintza ekonomikoak irakurriko ditu.

5.- Gutun-azal horietan jasotako dokumentazioa ezaugarrien taulako **21. atalean** adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko da.

6.- Nolanahi ere, irizpide horien ebaluazioa BI zenbakiko gutun-azaletan jasotako dokumentazioa baloratu ondoren egingo da beti.

26.4.- Kontratazio-mahaiaren aktak

Aurreko paragrafoen arabera egindako jarduketa guztiak dagozkion aktetan jasoko dira, eta horietan prozeduraren emaitza eta intzidentziak agertuko dira.

27.- Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitza jendaurrean jartzea eta eragindako lizitatzaileei jakinaraztea

1.- Eskaintzen kalifikazioa, onarpena edo baztertzea kontratatzailearen profilean argitaratuko dira. Kanpoan utziko da indarrean dagoen legeriaren arabera argitaratu ezin den informazioa. Horrek ez du eragotziko eragindako lizitatzaileei, dagokionaren arabera, egin beharreko komunikazioa edo jakinarazpena.
2.- Lizitatzaile bat baztertzeko egintza jakinaraziko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduren arabera.
3.- Jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egiteari uko egin zaiola ulertuko da jakinarazpena eskura jarri zenetik hamar egun natural igaro badira eta bere edukian sartzen ez bada; eta

jakinarazpena epearen barruan egiteko betebeharra betetzat joko da jakinarazpena Bidegiren egoitza elektronikoan eskuragarri jartzen denean.

28.- Adjudikazio-irizpideak

1.- Lizitazio-iragarkian eta ezaugarrien taulako **21. atalean** ezarritakoak izango dira kontuan hartu beharreko irizpideak, baita kontratua adjudikatzeko haztapena ere, eta horiek aplikatzekoak izango dira bai oinarrizko eskaintzari, bai, hala badagokio, aldaerei.

2.- Paperaren tamainari, marjinei, letra-tipoari eta testu idatzien lerroarteari dagokienez (grafikoak, argazkiak, diagramak... alde batera utzita) ezaugarri-taulako **21. atalean** adierazitako ezaugarri formalak betetzen ez dituzten eskaintzak aurkezten dituzten enpresei eskatuko zaie eskaintza formalki zuzentzeko, haren eduki materiala aldatu gabe. Eduki hori aldatzeak berekin ekarriko du prozeduratik berehala baztertzea.

Errekerimendua egin ondoren informalitateak iraunez gero, proposamenak ez dira baloratuko dagokion adjudikazio-irizpideari dagokionez, eta ez-betetze horrek ez du inola ere ekarriko adjudikazio-prozeduratik kanpo uztea.

3.- Ez dira inola ere prozeduratik kanpo utziko ezaugarri formal horiek betetzen dituzten eta adierazitako **21. atalean** adjudikazio-irizpideekin lotutako atal bakoitzerako ezarritako gehieneko hedadura (azalak eta aurkibideak kontuan hartu gabe) gainditzen duten proposamenak. Adierazitako gehieneko hedadura gainditzen gero, baimendutako gehieneko orri kopururaino baloratuko da edukia.

4.- Enpresa lizitatzaileren batek ez balu aurkeztuko adjudikazio-irizpideei buruzko dokumentazioa, enpresa horren proposamena ez da baloratuko dagokion irizpideari dagokionez. Proposamenak ez dira inola ere adjudikazio-prozeduratik kanpo utziko arrazoi horrengatik.

29.- Eskaintzak baloratzea

1.- Bere eginkizunak betetzeko, mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, SPKLren 146.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.- Kontratazio-mahaiak baztertu egingo ditu exijitutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak.

3.- Balio-judizioaren arabera baloratu beharreko irizpideek haztapen osoaren % 50 gainditzen dutenean, kualifikazio egokia duten adituek edo organismo tekniko espezializatu batek osatutako batzorde batek egingo du BI zenbakiko gutun-azalaren aldez aurreko ebaluazioa (ezaugarrien taulako **21. atalean** berariaz adierazi eta kontratatzailearen profilean argitaratutako da batzorde hori). Atal honetan, adituen batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak baloratu beharreko irizpide zehatzak jasoko dira, baita balorazioa egiteko epea eta berori kuantifikatzeko muga minimoak eta maximoak ere.

30.- Eskaintzak argitzea

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak aurkeztu diren eskaintzei buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkiete lizitatzaileei, edo, haien idazketan akats material nabarmenak zuzendu behar badituzte, hala jakinaraziko die, betiere tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatzen bada eta eskaintzen baldintzak inola ere aldatzen ez badira. Egindako guztia jasota geratu beharko da espedientean.

31.- Ohi baino balio baxuagoak dituzten eskaintzak

1.- Kontratazio-organoak parametro objektiboak ezarriko ditu ezaugarrien taulako **21. atalean**, eta, horien arabera, ulertuko da proposamena ezin dela bete ohi baino baxuagoa dela jotzen delako.

2.- Formulak aplikatuz automatikoki baloratu beharreko eskaintzen gutun-azalak ireki ondoren, baldintza-agiri honetan ezarritako parametro objektiboak aplikatuko dira, eta, horien arabera, anormaltasun-presuntzioan sartuta dauden eskaintzak identifikatuko dira. Proposamen bat edo

batzuk ezohikotasun-presuntzioaren eraginpean egon daitezkeela identifikatuz gero, kontratazio-mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio-organoak lizitatzaileari edo lizitatzaileei eskatu beharko die justifikatu eta xehatu ditzatela, arrazoituz eta xehetasunez, eskaintzaren ezohikotasuna definitu duten proposameneko parametroak, SPKLren 149. artikuluko 4. paragrafotik 6.era bitartean aurreikusitako prozedura tramitatuta eta, horren emaitza ikusita, kontratazio-organoari hura onartu edo baztertu dadin proposatuta.

3. Kontratazio-mahaiak, enpresa lizitatzaileak egindako justifikazioa eta, hala badagokio, eskatu diren txostenak kontuan hartuta, uste badu bildutako informazioak ez duela behar bezala azaltzen lizitatzaileak proposatutako prezioen edo kostuen maila baxua, eta, beraz, eskaintza ezin dela bete ezohiko balioak sartzearen ondorioz, proposamena baztertu egingo da.

32.- Ondorengotza prozeduran

1.- Bat egiteko, zatitzeko edo enpresaren ondarea edo jarduera-adar bat eskualdatzeko eragiketa bat gertatzen bada prozedura tramitatzen den bitartean eta kontratua egin baino lehen, sozietate bereganatzailea, bat-egitearen emaitza dena, zatiketaren onuraduna dena edo enpresa-ondarearen edo jarduera-adarraren eskuratzailea izango da enpresa lizitatzailearen edo hautagaiaren ondorengoa prozeduran, baldin eta horretarako gaitasuna badu eta kontratatzeko debekurik ez badu eta bere kaudimena nahiz sailkapena egiaztatzen baditu, adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko administrazio-klausula partikularren agirian eskatutako baldintzak beteta.

2.- Aurreko paragrafoan aipatutako eragiketak enpresa-elkarteen barruan egiaztatzen direnean, SPKLren 69. artikuluan ezarritakoa beteko da.

33.- Administrazioak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartzea eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea

1.- Kontratazio-organoak kontratua formalizatu aurretik erabaki ahal izango du kontratua ez adjudikatzea edo sinatzea, baita adjudikazio-prozeduran atzera egitea ere, SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera. Erabakia lizitatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordeari ere horren berri emango dio, kontratua Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean iragarri bada.

2.- Bi kasuetan, hautagai egokiei edo lizitatzaileei baldintza-agiri honen ezaugarrien taulako **28. atalean** adierazten den kopurua ordainduko zaie.

34.- Adjudikazioa

34.1.- Eskaintzen sailkapena eta adjudikazio-proposamena

Eskaintzak baloratu ondoren, kontratazio-mahaiak, aktarekin batera, dagokion balorazioa eta adjudikazio-proposamena bidaliko dizkio kontratazio-organoari. Bertan, eskaintzak goitik behera ordenatuta agertuko dira, ezaugarri-taulako **21. atalean** adierazitako irizpideak aplikatuta bakoitzari emandako puntuazioa barne, kalitate-prezio erlaziorik onena duena identifikatuta.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik ematen proposatutako lizitatzailearen alde, eta horrek ez du entitate kontratatzailearen aurrean eskubiderik eskuratuko, kontratua formalizatu arte.

34.2.- Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak aldez aurreko baldintzak betetzearen egiaztagiriak aurkeztea

1.- Eskaintzak baloratu ondoren, Bidegiko mahaiak dagokion adjudikazio-proposamena bidaliko dio Kontratazio Organoari Aktarekin batera. Proposamen horretan, eskaintzak goitik behera ordenatuta agertuko dira, adjudikazio-irizpideak aplikatzearen ondorioz bakoitzari emandako puntuazioa eta eskaintzarik onena identifikatuta.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez dio inolako eskubiderik ematen lizitatzaile horri, eta horrek ez ditu eskubide horiek eskuratuko kontratua formalizatu arte.

2.- Kontratazio-mahaiak egindako adjudikazio-proposamena aurrean duela, kontratazio-mahaiak aurkeztu diren proposamenak antolatuko ditu, beheranzko hurrenkeraren arabera, baldintza-agiri honetan adierazitakoaren arabera neurri kanpokotzat edo ezohikotzat jo direnak salbuetsita.

3.- Kontratazio-mahaiak, kontratazio-zerbitzuaren bitartez, eskaintzarik onena aurkeztu duenari eskatuko dio honako dokumentu hauek aurkez ditzala, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita:

- Jarduteko gaitasuna eta jarduera-esparrua. Ordezkaritzaren egiaztagiriak, hala badagokio.
- Lizitatzaileak azpikontratatzeko asmoa duen kontratu zatiari buruzko deklarazioa. Kasu horretan, azpikontratistak identifikatu beharko ditu, obran edo zerbitzuan duten partaidetza-ehuneko hutsetik haratago.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituenaren egiaztagiriak.
- Desgaitasuna duten langile finkoen kopuruari buruzko deklarazioa.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergako alta edo alta emanda egotearen egiaztagiria.
- Behin betiko bermea (baldintzak 16. klausulan garatzen dira).

Horretarako, enpresa lizitatzaileak berariazko baimena eman dezake entitate kontratatzaileak Gipuzkoako Foru Aldundian dituen zerga-datuetara zuzenean sartzeko eta horren egiaztapena zuzenean lortzeko. Baimen hori emanez gero, lizitatzaileak ez du aurkeztu beharko Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zerga betebeharretan egunean egotearen egiaztagiririk, EJZri dagokiona izan ezik.

4.- SPKLren 150.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileari ez bazaio kontratua adjudikatu, egindako errekerimendua behar bezala ez betetzeagatik, eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da, eta dokumentazio bera eskatuko zaio, epe berean, hurrengo enpresa lizitatzaileari, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran.

5.- EJZn alta emanda egotea egiaztatzeko, aribideko ekitaldiari dagokion alta edo EJZren azken ordainagiria aurkeztu beharko da, eta hori osatuko da zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko deklarazioarekin (APKLEOren 15. artikulua).

Nolanahi ere, lizitatzailea indarrean dagoen legeriak ezarritako salbuespenen baten sartuta badago, zergan alta emanda egotea egiaztatzeaz gain, salbuespena eman izana egiaztatu beharko du, zerga-administrazio eskudunaren berariazko ebazpenaren bidez edo, bestela, dagokion salbuespen-kausa zehatza adieraziko duen erantzukizunpeko deklarazioaren bidez.

6.- Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ulertuko da, eta, kasu horretan, hurrengo enpresa lizitatzaileari dokumentazio bera eskatuko zaio, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera.

34.3.- Behin betiko bermea

1.- Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak, SPKLren 145. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin betiko bermea jarri beharko du kontratazio-organoaren esku. Haren kopurua lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren zenbatekoaren % 5 izango da (balio erantsiaren gaineko zerga kanpo). Berme hori eratu izana hamar egun balioduneko epean egiaztatu beharko da, SPKLren 150.2 artikuluko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.- Ezaugarrien taulako **20. atalean** ageri den behin betiko bermea eratu ahal izango da SPKLren 108. artikuluan eta APKLEOren 55. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako edozein modutan. Baldintza hori betetzen ez bada enpresa adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, entitate kontratatzaileak ez du haren aldeko adjudikaziorik egingo.

3.- Ezaugarrien taulako atal horretan hala aurreikusten bada, prezioan atxikipena eginez eratu ahal izango da.

Prezioan atxikipena eginez eratzen bada, behin betiko bermea kontratistari jasanaraziko zaio, aldez aurretik berariazko baimena emanda. Berme horren zenbatekoa lehen fakturatik eta hurrengoetatik kenduko da, berme osora iritsi arte.

4.- Kontratistak, eska dakizkiokeen kalte-ordainak edo zigorrak berme horren bitartez ordaintzen badira, berriz jarri beharko du bermea, edo lehendik jarritakoa handitu, dagokion heinean. Kalte-ordainak edo zigorrak ordaintzen direnetik hamabost egun izango ditu horretarako, eta hala ez egitea kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

5.- Baldin eta kontratua aldatu delako kontratuaren prezioa ere aldatu egiten bada, bermea egokitu egin beharko da, kontratua aldatzeko erabakia adjudikaziodunari jakinarazi zaion egunetik zenbatzen hasi eta hamabost eguneko epean, aldatutako prezio berriaren eta bermearen artean dagokion proportzioa egon dadin.

6.- Nolanahi ere, behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzungo die. Kontzeptu horien artean sartzen da kontratistak ez betetzea SPKLren 196. artikuluan aurreikusitako kontratuaren xede diren prestazioak oker gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra.

7.- Behin-behineko bermea eratzen den kasuetan, adjudikaziodunak, nahi izanez gero, behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betikoari aplikatu ahal izango dio, edo behin betikoa berriro eratu.

8.- Berme osagarria SPKLren 107.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz ezarriko da, eta, hala badagokio, ezaugarrien taulako **20. atalean** xedatutakoari jarraituko zaio.

34.4.- Adjudikazioa

1.- Kontratazio-organoak kontratua adjudikatu beharko du **34.2 klausulan** aipatzen den dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan.

Hala ere, kontratuaren adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa denean, kontratua adjudikatzeko epea, gehienez ere, hamabost egunekoa izango da, proposamenak irekitzeko egunaren ondorengotik kontatzen hasita.

Ezingo da lizitazio bat adjudikatu gabe utzi, baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

2.- Adjudikazioaren ebazpena arrazoitu egin beharko da, eta enpresa lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da hamabost eguneko epean.

3.- Enpresa adjudikaziodunak hitzarmen kolektiboari buruz deklaratzen duen informazioa, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa, adjudikazioaren ebazpenean sartuko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

4.- Aurreko 2. atalean aipatzen den jakinarazpenak eta publizitateak jaso egingo dute adjudikazio-prozeduran interesa duten pertsonek adjudikazio-erabakiaren aurka errekurtso nahikoa oinarritua aurkezteko behar duten informazioa, eta, bereziki, SPKLren 151.2 artikuluak exijitzen duena.

5.- Adjudikazioaren motibazioari SPKLren 155.3 artikuluan jasotako konfidentzialtasun-salbuespena aplikatzekoa izango zaio.

6.- Nolanahi ere, jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean adieraziko da zein epetan formalizatu behar den kontratua, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera.

34.5.- Adjudikazio-koefizientea

1.- Onuragarrientzat hartutako proposamenari adjudikazioa emateko ebazpenean, Administrazioak behin betiko finkatuko du adjudikazio-koefizientea.

2.- Adjudikazio-koefizientea izango da enpresa adjudikaziodunak bere proposamenaren eskaintza ekonomikoan adierazitako prezioaren eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren arteko erlaziotik ateratzen dena.
Lanak egiten diren bitartean, Administrazioak onartutako preskripzio tekniko partikularren agirian azaltzen diren prezioak aplikatuko dira. Prezio horiek enpresa lizitatzaileak egindako eskaintza ekonomikoaren ondoriozko adjudikazio-koefizientearen eraginpean egongo dira.

35.- Kontratua formalizatzea

1.- Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den kontratu-agirian formalizatu beharko da, eta agiri hori edozein erregistro publikotan sartzeko titulu nahikoa izango da. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu ahal izango du, eta bere kontura izango dira dagozkion gastuak. Kontratua formalizatzen den dokumentuan ezin izango da sartu, inola ere, adjudikazioaren terminoak aldatzea ekarriko duen klausularik.

2.- Kontratua formalizatzen denean burutzen da, eta ezingo da inoiz kontratua egikaritzen hasi aurretik formalizatu gabe.

3.- Kontratua sinatu aurretik, adjudikaziodunaren ordezkariak honako hauek aurkeztu beharko dizkio kontratazio-organoari:

a) Bere nortasunaren eta ordezkaritzaren egiaztagiriak.
b) Adjudikazioduna aldi baterako enpresa-elkarte bat bada, hura eratzearen eskritura publikoa, esleitutako IFK eta behar besteko ahalordea duen ordezkariaren izendapena.
c) Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak emandako ziurtagiria aurkeztu bada, hura ematea eragin zuten inguruabarrak indarrean daudela berretsi beharko du adjudikaziodunak.

4.- Kontratua, kontratazio-arloko errekurtso berezia jar badakioke, ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaileei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio adjudikaziodunari, gehienez ere bost egun naturaleko epean formaliza dezan kontratua, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, baldin eta aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro bada eta ez bada jarri kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik. Berdin jokatuko du errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uzten duenean.

5.- Gainerako kasuetan, kontratua gehienez ere hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da, adjudikaziodunak adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

6.- Kontratuaren edukian berariaz sartu beharko dira adjudikaziodunak bere proposamen teknikoan bere gain hartzen dituen betebeharrak, gizarte- eta ingurumen-alderdiei buruzko adjudikazio-irizpide gisa baloratutako alderdiei dagokienez, urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauak, foru-sektore publikoaren kontratazioan erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu-klausulak txertatzen dituenak, 11.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.- Adjudikaziodunari egoztekoak zaizkion arrazoiak tarteko kontratua ez bada formalizatu aipatutako epearen barruan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3 eskatuko zaio, BEZa barne, zigor moduan; zenbateko hori, lehenbizi, behin-behineko bermearekin ordainduko da, baldin eta hori jarri bada. Nolanahi ere, kontratatzeko debekuaren pean dagoela deklaratu ahal izango da, SPKLren 71.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

8.- Kontratua ez formalizatzea entitate kontratatzaileari egotzi ahal zaizkion kausengatik gertatu bada, berandutzeak eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio kontratistari.

9.- Kontratua formalizatu dela SPKLren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera argitaratuko da.

III. KAPITULUA - KONTRATUA EGIKARITZEA

36.- Kontratuaren arduraduna

1.- Kontratazio-organoak, kontratua adjudikatzeko ebazpenean, kontratuaren arduradun bat izendatuko du, eta horri egokituko zaio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea, baita hitzartutako prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko behar diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea ere.

Era berean, kontratuaren arduradunak laguntzaileak eduki ahal izango ditu, titulu profesionalen edo ezagutza espezifikoen arabera, eta horiek kontratua adjudikatzeko ebazpenean bertan identifikatuko dira, edo, hori ezinezkoa bada une horretan, geroago.

Kontratuaren arduraduna enpresa adjudikaziodunaren eta kontratazio-organoaren arteko solaskidea da.

2.- Beren eginkizunak betetzeko, arduradunak eta harekin lan egiten dutenek sarbide librea izango dute kontratuaren xedea betetzeko lekuetara, eta egokitzat jotzen dituzten ikuskapenak egin ahal izango dituzte, segurtasun- eta osasun-koordinatzaile izendatutako pertsonak lagunduta, betiere kokaleku horiek eta haien baldintza teknikoak erabakigarriak badira kontratuaren xede diren prestazioak emateko. Kasu horietatik kanpo, kontratuaren arduradunak berariaz eta xehetasunez justifikatu beharko du sarbidea izateko beharra, eta kontratazio-organoak aldez aurretik berretsi beharko du hori.

Era berean, egokitzat jotzen duten informazioa eta dokumentazioa eskatu ahal izango dute, eta kontratuaren xedea behar bezala egikaritzeko eta hura egikaritzean edozein gorabeherari konponbidea emateko behar diren bilerak sustatu eta deitu ahal izango dituzte.

3.- Kontratuaren arduradunak jarraibide egokiak ezarriko ditu.

Zehazki, eginkizun hauek dagozkio:

a) Kontratua kontratuaren baldintzetan eta aurreikusitako iraupen-epean egikaritzen dela egiaztatzea. Eginkizun honek ahalbidetuko du kontratuaren kalitate-baldintzak eta klausula sozialak, ingurumenekoak eta berritzaileak betetzen diren egiaztatzeko behar diren ekintzak egitea.

b) Edozein motatako ez-betetzeen berri ematea kontratazio-organoari, eta, hala dagokionean, proposatzea zigorrak ezartzeko prozedura hastea, kontratua etetea, kontratua suntsiaraztea eta beste neurri batzuk hartzea kontratua behar bezala betetzen dela bermatzeko edo enpresa kontratistaren ez-betetzeak eragindako kalte-galerak entitate kontratatzaileari ordaintzeko.

c) Kontratuan egin beharreko edozein aldaketa gomendatzea, hala nola eragiketa efikazagoak emango dituzten zehaztapenak, jarraibideak edo bestelako betekizunak.

d) Kontratuari atxikitako giza baliabideak edo baliabide materialak aldatzeko baimena ematea, kontratazio-organoaren jarraibideei betez, kontratua aldatzea ez dakarten kasuetan.

e) Luzapenen beharraz eta bidezkotasunaz informatzea eta horren arrazoiak ematea.

f) Enpresa kontratistak azpikontratistei ordaintzeko betebeharra betetzen duela egiaztatzea, hala badagokio.

g) Kontratistak aurkeztutako lan-programa onartzea, baldintza partikularren agiriak hala exijitzen duenean, organo eskudunak onartutako segurtasun- eta higiene-plana baliozkotzea eta, hala badagokio, hondakinen plana edo indarrean dagoen legeriaren arabera obrak egiteko exijitzekoa den edozein betebehar medial baliozkotzea.

4.- Kontratua egikaritzen den bitartean, kontratuaren arduradunaren edo laguntzaileen izendapena aldatzen bada, idatziz jakinaraziko zaio enpresa kontratistari eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

37.- Kontratistaren ondorengotza

1.- Enpresen edo haien jarduera-adarren bat egitearen, zatitzearen, gehitzearen edo eskualdatzearen kasuetan, kontratua egotzi zaion entitatearekin jarraituko du kontratuak, eta entitate hori kontratuaren ondoriozko eskubide eta betebeharretan subrogatuta geratuko da, SPKLren 98. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen badira. Kontratista aldi baterako enpresa-elkarte bat denean, SPKLren 69.9 artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

2.- Kontratistak modu frogagarrian jakinarazi beharko dio entitate kontratatzaileari bere nortasun juridikoari eragiten dion edozein aldaketa, eta dagozkion fakturak ordaintzeko legez aurreikusitako epeen zenbaketa eten egingo da horiek egiaztatu arte.

3.- Subrogazioa ezinezkoa bada kontratua emango zaion entitateak beharrezkoak diren kaudimen- eta gaitasun-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da, eta adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi dela iritziko zaio ondorio guztietarako.

38.- Kontratua lagatzea

1.- Kontratuaren ondoriozko eskubide eta betebeharrak hirugarren pertsona bati laga ahal izango dizkio pertsona edo enpresa adjudikaziodunak, baldin eta haren ezaugarri tekniko edo pertsonalak ez badira izan kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarriak, eta lagapenak ez badakar merkatuko lehiaren benetako murrizketarik.

2.- Kontratistak bere eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko, baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik lagapena baimentzea.
b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 egikarituta izatea.
c) Enpresa lagapen-hartzaileak kontratatzeko gaitasuna eta kontratua egikaritzeko fasearen arabera exijitzekoa den kaudimena izatea, eta kontratatzeko debekuaren kausaren batean sartuta ez egotea.
d) Lagapena enpresa adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen artean formalizatzea eskritura publikoan.

3.- Lagapen-hartzailea lagatzaileari legozkiokeen eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

39.- Enpresa kontratistaren baldintzak eta betebeharrak

39.1.- Baldintza orokorrak

1.- Kontratua egikaritzeko, zorrotz bete beharko dira baldintza-agiri honetan ezarritako klausulak, preskripzio teknikoen agiria eta kontratuaren arduradunak horiek interpretatzeko kontratistari ematen dizkion jarraibideak.

2.- Adjudikazioduna izango da zerbitzuaren xede diren ondasunen kalitatearen erantzule, bai eta kontratua egikaritzean izandako omisioek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko konklusioek entitate kontratatzaileari edo hirugarrenei eragindako ondorioen erantzule ere.

3.- Kontratistak ekipo eta giza bitarteko egokiekin eman beharko du zerbitzua, eta une oro erantzun beharko die lanen martxaren ondorioz sortzen diren beharrei. Bere eskaintzan jasotako bitarteko teknikoak ere jarriko ditu, eta, oro har, obrak ondo gauzatzeko behar diren guztiak.

4.- Kontratistak erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko du beti, kalteengatik izan dezakeen erantzukizuna estaltzeko. Enpresa adjudikaziodunak kontratu horren kopia aurkeztu beharko du, baita kontratua sinatu aurretik ordaindutako azken ordainagiriaren kopia ere. Gainera, ezaugarrien taulako **26. atalean** hala ezartzen bada, adierazitako estaldurak aseguratu beharko ditu eta zehazten diren aseguru gehigarriak izan beharko ditu.

Nolanahi ere, enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu aseguru-polizetan ezarritako mugak gainditzen dituzten kalte-galerak, baita poliza horiek estaltzen ez dituzten ondasun eta arriskuei dagozkienak ere.

5.- Entitate kontratatzaileak erabakiko du ea kontratistak emandako prestazioa bat datorren prestazioa gauzatzeko eta betetzeko ezarritako preskripzioekin, eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak emateko eta horiek jasotzean ikusitako akatsak zuzentzeko eskatuko du. Kontratistari egoztekoak zaizkion akats edo hutsen ondorioz, egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, uko egin ahal izango dio prestazioari eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da, edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

6.- Lizitaziora aurkezten diren enpresek beren borondatez onartzen dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, adjudikazio- eta egikaritze-prozesuetatik eratorritako datu guztiei horiek amaitu arte.

39.2.- Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak

1.- Kontratua egikaritzeko baldintza berezi guztiak hura egikaritzen parte hartzen duten azpikontratista guztiei ere exijituko zaizkie.

2.- Ezaugarrien taulako **22. atalean** aurreikusitakoez gain, hauek dira egikaritze-betebehar bereziak:

39.2.1.- Lan- eta gizarte-betebeharrak eta ingurumena babestekoak

1.- Kontratista behartuta dago lan-arloan, Gizarte Segurantzan, laneko segurtasun eta osasunean eta ingurumenaren babesean aplikatzekoak diren indarreko legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak betetzera, baita baldintza-agiri hauetan ezartzen direnak ere.

2.- Kontratistak kontratua egikarituko duen plantillari aplikatuko dizkio enpresa kontratistaren jarduera kokatzen den sektorean dagoen esparru baxueneko azken hitzarmen kolektibo sektorialak ezarritako lan-baldintzak, alde batera utzi gabe indarrean dauden eta hitzarmen horretan xedatutakoa hobetuko duten enpresako beste hitzarmen edo itun batzuk.

3.- Kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa kontratista behartuta dago kontratuari atxikitako langileen lan-baldintzei eustera, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren arabera, baldintza horiek okerragotu gabe; eta hori guztia hitzarmen horrek ondoren indarra galduko balu ere, hitzarmen kolektiboen indarraldia amaitzeari buruzko legezko edo hitzarmenezko aurreikuspenak aplikatuz. Betebeharra betetzat joko da indarrean dauden lan-baldintzei eusten bazaie, hala badagokio, indargabetzea gertatu aurreko unean. Nolanahi ere, lan-baldintzei eusteko betebeharra ere betetzat joko da, baldin eta aldatu egin badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren artean adostutako akordio baten bidez, baina soldata-baldintzak ezin izango dira inola ere aplikatzekoa den hitzarmen sektorial kolektiboan ezarritakoak baino okerragoak izan. Kontratista behartuta egongo da hori egiaztatzeko eskatzen zaion edozein informazio edo dokumentazio ematera kontratazio-organoari.

4.- Kontratistak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko du. Horretarako, adjudikatu ondoren kontratu horri atxikitako langileei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du.

5.- Atxikitako langileen lan-baldintzetan aldaketaren bat gertatzen bada, eta aldaketa horrek adjudikazioaren unean aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritako baldintzei eragiten badie, aldez aurretik jakinarazi beharko zaio kontratazio-organoari. Jakinarazpenean barne hartu beharko dira negoziazioaren ziurtagiriak eta lan-baldintza berrien edukia, baita horiek kontratuaren kostuen egituran izango duten berehalako eta etorkizuneko eragin ekonomikoa ere.

6.- Azpikontratazioaren kasuan, enpresa azpikontratistak klausula honetan xedatutakoa bete beharko du. Azpikontratatutako jarduera hasi aurretik, azpikontratatutako enpresetako langileen

Gizarte Segurantzako afiliazioa eta alta egiaztatuko ditu enpresa kontratistak, eta kontratazio-organoari jakinaraziko dio.

7.- Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, entitate kontratatzailea betebehar horretatik eratorritako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera kondenatzen bada, ondorio horiek kontratistarengan jasanaraziko dira, eta, horretarako, entitate kontratatzaileak beretzat erreserbatuko du egoki eta komenigarri den edozein egintza administratibo edo judizial, ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

39.2.2.- Kontratua egikaritzeari atxikitako langileen betebeharrak

1.- Enpresa adjudikaziodunak, kontratatutako jarduera hasi aurretik, kontratua gauzatzera bideratuko dituen langileen zerrenda aurkeztu beharko du, eta Gizarte Segurantzan alta emanda eta afiliatuta daudela egiaztatu beharko du.

Bestela, erantzukizunpeko deklarazio bat aurkeztu beharko du, kontratua egikaritzeaz arduratuko diren pertsonak data horretan kontratatuta ez dituela adieraziko duena, eta kontratatu dituenean (betiere kontratatutako jarduera hasi aurretik) pertsona horien guztien afiliazioa eta alta egiaztatuko dituena.

2.- Enpresak kontratuaren xedera atxikiko dituen langile berriak kontratatzen baditu, entitate kontratatzaileari informazio eta dokumentazio hau eman beharko dio:

- Gizarte Segurantzako afiliazioa eta alta.
- Kontratu mota, kontratuaren xedea, kategoria edo talde profesionala eta lanaldia.
- Urteko soldata gordina (ordainsari-kontzeptuen arabera banakatuta).
- Hala badagokio, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa eta aplikatzekoak diren indarreko itunak.
- Hala dagokionean, gaikuntza ematen duen titulazio akademikoa.

3.- Enpresa kontratistak hilero bidaliko dio kontratuaren arduradunari kontratuari atxikitako langile guztien eta hari lotutako gainerako pertsona fisiko eta juridikoen zerrenda, baita langileen soldatak eta Gizarte Segurantzako kuotak ordaindu izanaren ziurtagiriak ere.

4.- Kontratua bere horretan betetzen ari dela egiaztatzeko, kontratazio-organoak beharrezkoa eta egokia izango den informazio pertsonala soilik eskuratu ahal izango du, neurriduna eta datuen kalitatearen printzipiora egokitua, eta betiere datuak babesteari buruzko legeriak eskatzen dituen printzipioak betez.

5.- Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, entitate kontratatzailea betebehar horretatik eratorritako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera kondenatzen bada, ondorio horiek kontratistarengan jasanaraziko dira, eta, horretarako, entitate kontratatzaileak beretzat erreserbatuko du egoki eta komenigarri den edozein egintza administratibo edo judizial, ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

39.2.3.- Subrogazio-kasuetako betebeharrak

1.- SPKLren 130. artikuluan aurreikusitako informatzeko betebeharra aplikatuz, subrogazioak eragiten dien langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa ematen da ezaugarrien taularen **27. atalean**, enpresa lizitatzaileei kontratuaren adjudikaziodun suertatuz gero izango dituzten benetako lan-kostuak behar bezala ebaluatzeko aukera emateko.

Hau da informazioa: subrogazioaren xede diren langileen zerrenda, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa, lan-kategoria, kontratu mota, antzinatasun-data, lanaldia, kontratuaren epemuga, langile bakoitzaren urteko soldata gordina, subrogazioari eragiten dioten langileei aplikatu beharreko indarreko itunak eta, nahitaezkoa denean, titulazio akademikoa.

2.- Kontratua enpresa berriari adjudikatu ondoren, baina kontratua egikaritzen hasi baino lehen, zerbitzua emateari uzten dion enpresak ziurtagiri bat entregatuko dio adjudikaziodun berriari. Ziurtagiri horretan, honako hauek jasoko dira: langileen izena, jaioteguna, edozein motatako lansari guztien zenbatekoa (ordainsari-kontzeptuaren arabera banakatuta), antzinatasuna, kontratu-modalitatea, kontratuaren aurreikusitako epemuga, lanaldia, kategoria edo talde

profesionala eta aplikatzekoak diren indarreko itun guztiak, baita Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria ere, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea egiaztatuko duena, eta ordaintzea dagokion zati proportzionalen likidazioaren ordainagiriak. Era berean, adjudikaziodun berriaren eskura jarriko ditu horren guztiaren egiazkotasuna ziurtatzeko egokitzat jotzen dituen dokumentuak.

Enpresak langileen ordezkaritza baldin badu, ziurtagiriarekin batera enpresak emandako txostena aurkeztu beharko du, gutxienez aurreko paragrafoan adierazitako datuei buruzkoa.

3.- Subrogazioa egin ondoren lan-kostuak handiagoak badira aurreko kontratistak kontratazio-organoari emandako informaziotik ondorioztatzen direnak baino, kontratista berriak zuzeneko akzioa erabili izango du aurreko kontratistaren aurka.

4.- Kontratua uzten duen kontratista subrogazioak eragindako langileei ordaindu gabeko soldaten erantzule izango da, baita Gizarte Segurantzan sortutako kotizazioen erantzule ere, nahiz eta kontratua suntsiarazi eta kontratista berriak langileak subrogatu. Betebehar hori ez dagokio, inola ere, kontratista berriari (salbu eta subrogazioa Langileen Estatutuaren 44. artikulua aplikatuta egin bada). Horretarako, entitate kontratatzaileak, soldata horiek ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, kontratistari zor dizkion zenbatekoak atxikiko ditu soldata horiek ordainduko direla bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatak ordaindu direla egiaztatu arte.

5.- Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, entitate kontratatzailea betebehar horretatik eratorritako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera kondenatzen bada, ondorio horiek kontratistarengan jasanaraziko dira, eta, horretarako, entitate kontratatzaileak beretzat erreserbatuko du egoki eta komenigarri den edozein egintza administratibo edo judizial, ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

39.2.4.- Egikaritzeko hizkuntza-betebeharrak

1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak erregulatua.

2.- Ezaugarrien taulan besterik adierazi ezean, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede diren azterketak, txostenak, proiektuak edo bestelako lanak bi hizkuntza ofizialetan emango ditu, softwareen testu- eta soinu-interfazeak barne.

3.- Diseinu eta jarduera guztiak (errotuluak, argitalpenak, seinaleak, abisuak eta komunikazioak barne) planteamendu elebidunaz gauzatu behar dira, euskaraz eta gaztelaniaz, planteatzen den ekintzaren ezaugarrien eta xede den herritar-segmentuaren arabera euskara lehentasunez erabiltzea komenigarritzat jotzen den kasu zehatzetan izan ezik, betiere herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea babestuta.

4.- Errotulu, argitalpen, seinale, abisu eta komunikazioetan eta, oro har, elkarrizketetan euskararen erabilera bermatuko da.

5.- Kontratua egikaritzeko hirugarrenekin edo, oro har, herritarrekin harremanetan jarri behar denean, kontratua egikaritzeko ardura duen enpresaren eta kontratua egikaritzeko hartzaileen arteko bai ahozko, bai idatzizko komunikazioan, erabiltzaileak edo hirugarren pertsonak kasu bakoitzean aukeratzen duen hizkuntza erabiliko da. Berariaz aukerarik egiten ez bada, adjudikazioaz arduratutako enpresak pertsona fisiko edo juridikoei zuzentzen dizkien era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira. Nolanahi ere, herritarrak edonoiz baliatu ahal izango du hizkuntza aukeratzeko eskubidea, eta hizkuntza ofizial bakar bat erabiltzeko eskatu ahal izango du.

39.2.5.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko betebeharrak

1.- Kontratua egikaritzean, enpresa adjudikaziodunak neurriak ezarri beharko ditu arlo hauetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko: enplegurako sarbidea, sailkapen pertsonala, sustapena, iraunkortasuna, prestakuntza, ordainsariak, lanaren kalitatea eta egonkortasuna, lanaldiaren iraupena eta antolamendua; baita kontratua egikaritzera atxikitako langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa kontziliatzen laguntzen duten neurriak ere,

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 3/2007 22 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

2.- Enpresa adjudikaziodunak hizkera ez-sexista erabili beharko du kontratua egikaritzean sortzen den bere dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztian, eta saihestu egin beharko ditu emakumeen irudi diskriminatzailea edo estereotipo sexistak, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen aniztasunaren balioak izango dituen irudia sustatu beharko du.

3.- Enpresa edo entitate adjudikaziodunak lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak hartuko direla bermatuko du hamar langile baino gehiago behar dituzten kontratuetan.

39.2.6.- Azpikontratazio-kasuetako betebeharrak

1.- Azpikontratuak egiteko, eskakizunak hauek bete beharko dira:

a) Adjudikaziodunak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta, beranduenez, kontratua egikaritzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, adierazita azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia eta azpikontratisten identitatea, harremanetarako datuak eta legezko ordezkariak; eta horrekin batera aurkeztu beharko ditu azpikontratistek azpikontratatu nahi den prestazioaren zatiak gauzatzeko duten gaitasunaren ziurtagiriak eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez izatearen egiaztagiriak.

   Proposatutako enpresa azpikontratistak, SPKLren 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko gaitasunik eta debekurik ez duela egiaztatzeko, aurreko atalean adierazitako dokumentazioarekin batera, azpikontratistak sinatutako erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztu beharko du nahitaez.

   Eskaintzan adierazitakoarekin bat ez datozen azpikontratuak, eskaintzan adierazitakoez bestelako enpresekin egin direlako edo bertan adierazitakoez bestelako prestazio zatiei dagozkielako, ezin izango dira egin hogei egun natural igaro arte jakinarazpena bideratu eta azpikontratistak hura gauzatzeko duen gaitasunaren ziurtagiriak aurkezten direnetik, eskura dituen elementu teknikoei, giza baliabideei eta esperientziari dagokienez, salbu eta aurretik berariaz baimendu badira, eta betiere entitate kontratatzaileak epe horren barruan ez badu jakinarazi haien aurka dagoela. Araubide hori aplikatzekoa izango da, halaber, azpikontratistak beren lanbide-profila deskribatuta identifikatu badira eskaintzan.

b) Enpresa kontratistaren erantzukizunpean, azpikontratuak amaitu ahal izango dira hogei egun naturaleko epea igaro gabe, baldin eta horiek egitea beharrezkoa bada larrialdi-egoera bati erantzuteko edo presazko neurriak hartzea eskatzen badu eta behar bezala justifikatzen eta jakinarazten bada.

c) Kontratu isilpeko edo erreserbatuetan, edo legezko edo erregelamenduzko xedapenen arabera segurtasun-neurri bereziekin batera egikaritu behar direnetan, edo entitate kontratatzailearen segurtasunaren funtsezko interesak babesteko beharrezkoa denean, azpikontratazioak kontratazio-organoaren berariazko baimena beharko du beti.

2.- Ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazitako zeregin kritikoak ezin dira azpikontratatu, eta kontratista nagusiak egin beharko ditu zuzenean.

3.- Azpikontratistak enpresa kontratista nagusiaren aurrean soilik egongo dira behartuta. Hortaz, enpresa horrek hartuko du bere gain entitate kontratatzailearen aurrean kontratua egikaritzeko erantzukizun osoa, baldintza partikularren agiriei eta kontratuaren terminoei zorrotz lotuta, ingurumenaren arloko eta arlo sozial edo laboraleko betebeharrak betetzea barne, baita datuak babesteari buruzko Estatuko eta Europar Batasuneko araudiari men egiteko betebeharra ere.

Entitate kontratatzaileak aurreko 1. ataleko a) eta b) letretan aipatzen diren jakinarazpenen ondorioz egindako azpikontratuen berri izateak, edo atal horretako c) letran aurreikusitako kasuan ematen duen baimenak, ez dute aldatuko enpresa kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa.

4.- Enpresa kontratistak ezin izango du, inola ere, kontratuaren egikaritze partziala hitzartu ordenamendu juridikoaren arabera kontratatzeko ezgaituta dauden pertsonekin, edo SPKLren 71. artikuluko kasuren batean sartuta daudenekin.

5.- Enpresa kontratistak azpikontratazioari atxikitako langileen ordezkariei jakinarazi beharko die, lan-legeriaren arabera.

6.- Enpresa edo entitate adjudikaziodunak azpikontratua jasoko duen dokumentua aurkeztu beharko dio kontratazio-organoari. Dokumentu horretan, enpresa edo entitate azpikontratistak kontratu honetan aurreikusitako klausulen inguruan dituen betebeharrak eta horiek ez betetzearen ondorioak zehaztu beharko dira.

7.- Azpikontratistei ordaintzeari dagokionez, SPKLren 216. artikuluan eta uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa bete beharko da. Lege horrek merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen du.

8.- Entitate kontratatzaileak egiaztatu ahal izango du kontratistak zorrotz betetzen dituela kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei egin beharreko ordainketak.

Horretarako, kontratistak entitate kontratatzaileari bidaliko dio, horrek hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda xehatua, haien parte-hartzea burutzen denean, baita horietako bakoitzaren azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzeneko lotura baldin badute.

Era berean, entitate kontratatzaileari, berak eskatzen duenean, SPKLren 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak bete izanaren egiaztagiria aurkeztuko dio.

39.2.7.- Laneko segurtasun eta osasunaren arloko betebeharrak

1.- Enpresa kontratistak laneko segurtasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, baita aplikatu beharreko hitzarmen kolektibotik eratorritakoak ere.

2.- Enpresa kontratistak nahitaezkoak edo beharrezkoak diren laneko segurtasun- eta higiene-neurriak hartu beharko ditu, kontratuaren xedera atxikitako langileen segurtasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak zorrozki prebenitzeko.

3.- Kontratuaren xedearen izaera dela-eta, entitate kontratatzailearen zentroetan prestazioren bat egin behar duten kontratistaren (edo, hala badagokio, azpikontratistaren) langileek esku hartu behar badute, eta zentro horietan entitate kontratatzailearen beraren langileek ere lan egiten badute, jarduera hasi aurretik, bildutako enpresa eta langile autonomo guztiek elkarrekin lankidetzan aritu beharko dute, eta informazioa trukatu beharko dute egingo dituzten eta langileengan eragina izan dezaketen jardueren arrisku espezifikoei. Enpresek beren langileei jarduerak batera egitearen ondoriozko arriskuen berri emango diete, eta koordinazio-bitarteko beharrezkoak eta egokiak ezarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan hartuko da laneko arriskuen ebaluazioan eta dagokion jarduera prebentiboen plangintzan.

Halakoetan, jarduera hasi aurretik, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betez, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Kudeaketa prebentiboari buruzko dokumentua, baita hartu beharreko neurri prebentiboei buruzkoa ere.
b) Egin beharreko lanen jarduera prebentiboa planifikatzea.
c) Kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistak sinatutako hartu-agiria, egiaztatuko duena entitate kontratatzailearengandik jaso egin dutela lantokiaren eta haren instalazioen berezko arriskuei, arrisku horiei aurrea hartzeko neurri prebentiboei eta jarraibideei eta larrialdi egoeretan aplikatu beharrekoei buruzko dokumentazioa.
d) Aukeratutako antolamendu prebentiboaren modalitatea. Kanpoko prebentzio-zerbitzuaren kasuan, Segurtasun, Higiene, Ergonomia eta Psikosoziologia aplikatuko hiru espezialitateetako prebentzio-zerbitzuarekin, baita Osasunaren Zaintzako

espezialitatekoarekin ere, egindako kontratuaren kopia erantsi beharko da; eta kontratua gaur egun indarrean dagoela adieraziko duen ziurtagiria edo ordainagiria.

e) Kontratua egikarituko duten langileen zerrenda eta kontratuaren xedera bideratuko diren makinak.

f) Kontratua egikaritzera atxikitako langileek lan kontratatuak egiteko gaitasun medikoaren egiaztagiriak.

g) Kontratua egikarituko duten langileei prebentzioaren arloan emandako prestakuntzaren eta informazioaren egiaztagiria, barne hartuta lantokiaren eta bertako instalazioen berezko arriskuei buruz jasotako informazioa, arrisku horiei aurrea hartzeko neurri prebentiboak eta jarraibideak, eta larrialdi kasuetan aplikatu behar direnak.

h) Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak (NBEak) entregatu izanaren egiaztagiria.

i) Enpresak bere makinak eta lan-ekipoak ekartzen baditu, adostasun-deklarazioa, CE markaketa edo uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretura egokitzearen dokumentua (1215/1997 Errege Dekretua, langileek lan-ekipoak erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak eta horiek erabiltzeko jarraibide-liburua ezartzen dituena). Era berean, horiek erabili behar dituzten langileek prestakuntza espezifikoa jasotzeren eta erabiltzeko baimena izatearen egiaztagiria.

j) Produktu kimikoen segurtasun-fitxak, enpresa kontratistak edo azpikontratistak produktu kimikoak ekarri behar dituenean.

k) Segurtasun- eta osasun-arauak betetzen direla bermatu beharko duen pertsonaren identitatea ezagutaraztea eta entitate kontratatzaileko langileekin koordinatzeko bitartekoak ezartzea. Halaber, bidezko baliabide prebentiboak eskura jartzea, beharrezkoak direnean.

Enpresa kontratistak beste enpresa batekin azpikontratatzen badu kontratuaren xedearen zati bat egitea, azpikontratistari (autonomoei) eskatu beharko dizkio aurreko atalean aurreikusitako egiaztagiriak, entitate kontratatzaileari eman diezazkion.

Bereziki, enpresa azpikontratistak laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko betebehar guztiak betetzen dituela zaindu behar du, eta, zehazki, araudiak prebentzio-jarduerak koordinatzeari eta, beharrezkoa denean, prebentzio-baliabideak eskura jartzeari dagokionez aurreikusten duena betetzen duela.

Enpresa kontratistak bermatu beharko du azpikontratatuak azpiegitura eta bitarteko egokiak dituela jarduera gauzatzeko, eta zuzenean zuzendu beharko ditu lanak.

Entitate kontratatzaileak zainduko du kontratistek eta azpikontratistek laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen dutela, eta, horretarako, helburu horrekin bat datorren edozein neurri hartu ahal izango du.

4.- Kontratuaren xedearen izaera dela-eta, entitate kontratatzailearen zentroetan prestazioren bat egin behar duen kontratistak (edo, hala badagokio, azpikontratistak) bere langileek lan egiten ez duten zentroetan esku hartu behar badu, ezingo da kontratuaren xede den jarduera hasi, baldin eta aldez aurretik entitate kontratatzaileak jarduera hauek egin ez baditu:

- Parte hartzen duten enpresei egindako jardueretan eragina izan dezaketen lantokiko arriskuen berri ematea, baita arrisku horien prebentzio-neurrien berri ere.
- Enpresa kontratistari larrialdi-neurrien berri ematea.

Lantoki horretan enpresa bat baino gehiagoko langileek parte hartu behar badute, jarduera hasi aurretik, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betez, parte hartzen duten enpresa eta langile autonomo guztiek elkarrekin lankidetzan jardun beharko dute, eta informazioa trukatu beharko dute egiten dituzten jardueren arrisku espezifikoei buruz, baldin eta parte hartzen duten beste enpresetako langileei eragin badiezaiekete. Enpresek beren langileei jarduerak batera egitearen ondoriozko arriskuen berri emango diete, eta koordinazio-bitarteko beharrezkoak eta egokiak ezarriko dituzte. Horretarako, jasotako

informazioa kontuan hartuko da laneko arriskuen ebaluazioan eta dagokion jarduera prebentiboen plangintzan.

Jarduera hasi aurretik, kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistak hartu-agiri sinatua aurkeztu beharko dute, egiaztatzeko administrazio kontratatzailearengandik dokumentazioa jaso dutela lantokiaren eta haren instalazioen berezko arriskuei buruz, egiten diren jardueretan eragina izan dezaketen lantokiko arriskuei buruz, baita arrisku eta larrialdi horiek prebenitzeko neurriei buruz ere.

5.- Kontratuari atxikitako kontratistak (hala badagokio, azpikontratistak) ez badu entitate kontratatzailearen zentroetan zerbitzurik ematen, baina haren makineria, ekipoak, produktuak, lehengaiak edo tresnak erabiltzen baditu, jarduera hasi aurretik, Administrazioak enpresa kontratistari edo azpikontratistari behar den informazioa emango dio makineria, ekipoak, produktu kimikoak, lehengaiak edo tresnak erabiltzeko eta maneiatzeko, eta, era berean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak, jarduera hasi aurretik, dokumentu bidez egiaztatu beharko du kontratua egikarituko duten langileek badutela administrazio kontratatzaileak emandako makineria, ekipoak, produktu kimikoak, lehengaiak edo tresnak erabiltzeko eta manipulatzeko behar den informazioa eta prestakuntza, eta badakiela zer informazio ematen duen administrazio horrek.

6.- Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, entitate kontratatzailea betebehar horretatik eratorritako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera kondenatzen bada, ondorio horiek kontratistarengan jasanaraziko dira, eta, horretarako, entitate kontratatzaileak beretzat erreserbatuko du egoki eta komenigarri den edozein egintza administratibo edo judizial, ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

39.2.8.- Enpresa kontratistako langileekiko betebeharrak

1.- Enpresa kontratistari dagokio soilik baldintza-agirietan eskatutako titulazio- eta esperientzia-eskakizunak betetzen dituzten langileak hautatzea (titulazio- eta esperientzia-betekizun espezifikoak ezartzen diren kasuetan). Langile horiek kontratua egikaritzera atxikitako lantaldeko kide izango dira, hargatik eragotzi gabe kontratazio-organoak eskakizun horiek betetzen direla egiaztatzea.

2.- Enpresa kontratistak ahalegina egingo du lantaldean egonkortasuna izan dadin, eta aldakuntzak puntualak eta arrazoi justifikatuen ondoriozkoak izan daitezen, zerbitzuaren funtzionamendu ona ez oztopatzeko (exijentzia hori justifikatzen duten arrazoiak daudenean), eta une oro emango dio horren berri kontratazio-organoari, AKPAn ezarritako terminoetan.

3.- Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du enpresaburu orori datxekion zuzendaritza-ahalmena modu erreal, eraginkor eta etengabean erabiltzeko, bere langileei dagokienez, eta konpromiso hauek hartzen ditu bere gain: negoziazioa; soldaten ordainketa; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezkapenak; laneko arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak; diziplina-zehapenak ezartzea, hala dagokionean; Gizarte Segurantzaren arloko ondorio guztiak (bereziki kotizazioak ordaintzea eta prestazioak ordaintzea); eta, oro har, enpresa enplegatzailearen eta haren langileen arteko kontratu-harremanetik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztiak.

4.- Enpresa kontratistak bereziki zainduko du kontratua egikaritzera atxikitako langileek beren jarduera egiten dutela kontratuaren xede gisa baldintza-agirietan zehaztutako jarduerarekiko dituzten eginkizunak gainditu gabe.

5.- Enpresa kontratistak gutxienez pertsona bat izendatu beharko du koordinazio teknikoaz arduratzeko. Pertsona hori bere enpresako plantillakoa izango da, eta eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:

a) Solaskide gisa jardutea enpresaren eta entitate kontratatzailearen artean, eta enpresaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko kideen arteko komunikazioa bideratzea, alde batetik, eta entitate kontratatzailearen artekoa, bestetik, kontratua egikaritzetik eratorritako gaiei dagokienez.

b) Lana kontratua egikaritzeko ardura duten langileen artean banatzea, eta haiei behar diren aginduak eta jarraibideak ematea kontratatutako zerbitzua egiteko.

c) Lantaldea osatzen duten langileek esleituta dituzten eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lanpostura bertaratzen direla kontrolatzea.

d) Kontratua egikaritzera atxikitako langileen opor-araubidea antolatzea. Horretarako, enpresa kontratistak behar bezala koordinatu beharko du entitate kontratatzailearekin, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko.

e) Entitate kontratatzaileari jakinaraztea kontratua egikaritzera atxikitako lantaldearen osaeran gertatzen diren aldaketak, noizbehinkakoak edo iraunkorrak, **39.2.2 klausulan** jasotako terminoetan.

6.- Enpresa kontratistak bere bulegoetan edo instalazioetan egikaritu beharko du kontratua, salbu eta baldintza-agirian aurreikusita badago zerbitzuak entitate kontratatzailearen bulegoetan eman behar direla, eta berariaz horretarako baimena eman bada. Kasu horretan, entitate kontratatzaileak langile publikoek betetzen dituztenetatik bereizitako lan-espazioak jarriko ditu enpresa kontratistaren esku, eta enpresa kontratistaren ardura izango da esleitutako kokapenean zerbitzu horiek eman behar dituzten langileen errespetua zaintzea.

7.- Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, entitate kontratatzailea betebehar horretatik eratorritako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera kondenatzen bada, ondorio horiek kontratistarengan jasanaraziko dira, eta, horretarako, entitate kontratatzaileak beretzat erreserbatuko du egoki eta komenigarri den edozein egintza administratibo edo judizial, ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

39.3.- Informazioaren segurtasunaren arloko betebeharrak

1.- Entitate kontratatzaileak emandako informazioa, datuak edo zehaztapenak, edo kontratua egikaritzean eskuratu direnak, konfidentzialtzat hartu beharko dituzte kontratistak eta haren zerbitzura dauden langileek, eta ezingo dira argitaratu, kopiatu, erabili, laga edo mailegatu, guztiz edo partzialki, SPKLren 133.2 artikuluaren arabera. Betebehar horiek entitate kontratatzailearekin dituzten harremanak amaitu ondoren ere iraungo dute.

2.- Kontratua egikaritzeko, kontratistak datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduaren arduradunaren kontura:

- Ezaugarrien taulan tratamendu horren helburua adieraziko da. Kontratistak ezin izango ditu datu horiek erabili zehaztutakoez bestelako helburuetarako. Kontratistak datuak beste helburu baterako erabiltzen baditu nahiz kontratuaren edo indarrean dagoen araudiaren xedapenak bete gabe komunikatzen baditu edo erabiltzen baditu, tratamenduaren organo erantzuletzat hartuko da, eta berak egindako arau-hausteen erantzukizun pertsonala hartuko du.
- Kontratistak datuen babesari buruzko araudi nazionala eta Europar Batasunekoa errespetatu beharko ditu, baita entitate kontratatzaileak agintzen dizkion jarraibideak ere.
- Kontratua formalizatu aurretik, zerbitzariak non dauden eta horiei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adierazi beharko du kontratistak. Kontratuaren bizitzan zehar horren inguruko edozein aldaketa behar bezala jakinarazi beharko da.
- Kontratistak, tratamenduaren arduraduna den aldetik, behar diren neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartu beharko ditu datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datu horiek suntsitzea, galtzea edo aldatzea edota baimenik gabe jakinarazi edo eskuratzea saihesteko.
- Kontratistak, kontratu-prestazioa amaitzean, datu pertsonalak suntsitu beharko ditu, edo entitate kontratatzaileari edo horrek izendatutako tratamenduaren beste pertsona bati itzuli beharko dizkio.

SPKLren 211. artikuluaren 1. apartatuko f) letran aurreikusitakoaren ondorioetarako, funtsezko betebeharra da atal honetako a), b) eta c) letretan adierazitakoa, baita honako hauek ere: beren

eskaintzan zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatu nahi dituzten adierazteko lizitatzaileek duten betebeharra, eta zerbitzuak emateko ardura emango zaien azpikontratisten enpresa-izena edo -profila (kaudimen profesional edo teknikoko baldintzei buruzko erreferentziaren bidez definitua). d) eta e) letretan aipatzen diren betebeharrak egikaritze-baldintza berezitzat hartuko dira.

3.- Adjudikaziodunak baimena emango dio entitate kontratatzaileari kontratua indarrean dagoen bitartean egokitzat jotzen dituen kontrolak egiteko, segurtasun-neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta neurri zuzentzaile egokiak hartu ahal izateko.

4.- Enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, entitate kontratatzailea zenbatekoak ordaintzera kondenatzen badute, ordaindutako zenbatekoa jasanaraziko zaio kontratistari. Horretarako, entitate kontratatzaileak beretzat gordeko du egoki eta komenigarri den edozein egintza administratibo edo judizial, ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

39.4.- Baimenak eta lizentziak kudeatzeari buruzko betebeharrak

1.- Lanak behar bezala egiteko behar diren baimenak eta lizentziak lortzea enpresa kontratistaren kontura izango da, kontratazio-organoak haiek bere kabuz kudeatzea erabakitzen ez badu behintzat, eta organismo eskudunen baldintzak eta aginduak bete beharko ditu.

2.- Baimen edo lizentzia horiengatiko tasak, fidantzak edo bestelako gastuak exijituz gero, enpresa kontratistaren kontura izango da, halaber, haiek ordaintzea edo gordailutzea.

39.5.- Kontratistari exijitzekoak zaizkion gastuak

Kontratistaren kontura izango dira kontratua formalizatzeko gastuak, hura eskritura publiko bihurtuz gero, baita kontratua egikaritzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak ere.

39.6.- Lan-programa

1.- Erakunde kontratatzaileak komenigarritzat jotzen badu lan-programa bat exijitzea, preskripzio teknikoen agirian ezarritakoaren arabera, adjudikaziodunak lan-programa hori aurkeztuko du entitate kontratatzaileak onar dezan, aukeratutako soluzioari buruzko dokumentuak onartzearekin batera, eta, bidezkoa bada, dagozkion epe partzialak ezarriko dira.

2.- Kontratuaren baldintzak aldatzen diren bakoitzean, adjudikaziodunak programa eguneratu beharko du, horretarako jasotzen dituen jarraibideak betez.

40. Berrikuntzarako elkartearen egitura

1.- Berrikuntzarako elkartea ondoz ondoko faseetan egituratuko da, ikerketa- eta berrikuntza-prozesuaren etapen sekuentziari jarraituz. Fase horietan, produktuak fabrikatzea eta zerbitzuak ematea edo obrak egitea sar daiteke, preskripzio teknikoen agirian zehaztutakoaren arabera.

2.- Etapa bakoitzean, enpresa bazkideek lortu beharko dituzten tarteko helburuak finkatuko dira, baita helburu horiek betetzeari lotutako ordainketen egutegia ere. Kontratu hau bi etapa hauetan egituratzen da:

- 1. ETAPA: Gailuaren bideragarritasun teknikoa baliozkotzea, ekosistema eta TAG ABIATU egokitzea eta lehen pilotua sortzea.

  Lehen etapan, adjudikaziodun suertatzen den enpresak edo Aldi Baterako Enpresa Elkarteak (ABEE) aurkeztutako proiektuarekin bat datorren soluzio bat proposatuko dio BIDEGI SAri, eta BIDEGIk soluzio hori zuzentzeko aukera izango du. Preskripzio Teknikoen Agirian (PTA) jasotako helburuak betetzen dituen produktua lortu ondoren, bigarren fasera igaroko da.

- 2. ETAPA: Soluzioaren garapena, besteak beste, gailuaren autonomia edo bateria eta haren birtualizazioa barne hartuta.

3.- Helburu horiek oinarri hartuta, kontratazio-mahaiak, etapa bakoitzaren amaieran, elkartea suntsiaraztea erabaki ahal izango du, edo, bazkide bat baino gehiagorekin elkartuz gero, bazkide kopurua murriztea, kontratu indibidualak suntsiarazita, ezaugarrien taulan eta preskripzio teknikoen agirian aurreikusitako terminoetan.

4.- Elkartea suntsiarazteak edo parte hartzen duten enpresen kopurua murrizteak ez du ekarriko benetan egindako eta onartutako lanen kontraprestazioaz bestelako kalte-ordainik, kontratua ez betetzeagatik dagozkion erantzukizunak bazter utzi gabe.

5.- Bazkide bat baino gehiago dituzten elkarteen kasuan, kontratazio-organoak ez die beste bazkideei ezagutaraziko bazkide batek elkartearen esparruan jakinarazten dituen proposatutako soluzioak edo beste datu konfidentzial batzuk, informazio espezifikoa jakinarazteari buruzkoa izan beharko duen azken horren adostasunik gabe.

40.1.- Okerrak zuzentzea eta akatsak konpontzea

1. Behin kontratua adjudikatuta, adjudikaziodunak kontratu hau arautuko duen behin betiko proiektua aurkeztu beharko du. Aurkeztu ondoren, eta akatsik antzemanez gero, kontratazio-organoak enpresa kontratistari exijituko dio zuzendu ditzala berari egoztekoak zaizkion okerrak, gabezia teknikoak, akats materialak, omisioak eta legezko edo erregelamenduzko aginduen arau-hausteak. Horretarako, ezaugarrien taulako **9. atalean** adierazten den epea emango dio (gehienez ere bi hilabetekoa).

2.- Epe hori igaro arren akatsak zuzendu ez badira, entitate kontratatzaileak, nondik norakoak kontuan hartuta, erabaki dezake kontratua suntsiaraztea edota kontratistari beste epe bat ematea.

3.- Kontratistak erreklamaziorik egin badu kontratuaren arduradunak egindako oharrei buruz, kontratua egin zuen kontratazio-organoari helaraziko dizkio ohar horiek, dagokion txostenarekin batera, eta organo horrek ebatziko du auziari buruz.

4.- Enpresa kontratistak ez badu idatziz erreklamaziorik egiten kontratuaren zuzendaritzaren oharrei buruz, ados dagoela ulertuko da, eta ikusitako akatsak zuzendu edo konpondu beharko ditu.

40.2.- Obrak gauzatzean izandako desbideratzeen ondoriozko kalte-ordainak eta proiektuaren huts edo akatsen ondoriozko erantzukizuna

1. Kontratista bere eskaintzan aurkeztutako eta BIDEGI SAk onartutako ikerketa- eta garapen-proiektuaren kalitate teknikoaren arduraduna izango da, baita proiektu horretan oinarrituta gauzatzen dituen I+G jardueren arduraduna ere, SPKLren 311. artikuluarekin bat etorriz.

2. Kontratistari egoztekoak zaizkion I+G proiektuaren huts eta gabezia teknikoen, akats materialen, omisioen edo legezko edo erregelamenduzko aginduen arau-hausteen ondorioz desbideratze nabarmenak gertatzen badira berrikuntzarako elkartearen faseetarako erabakitako errendimendu-mailekiko, gehieneko kostuekiko edo epeekiko (SPKLren 177., 180. eta 182. artikuluak), edo BIDEGI SAri edo hirugarrenei kalte-galerak eragiten bazaizkio, BIDEGI SAk kontratistari exijitu ahal izango dio kontratuaren prezioa jaisteko eta eragindako kalte-galerak ordaintzeko, SPKLren 311.2 artikuluan eta kontratuzko erantzukizunari buruzko araubide orokorrean ezarritako terminoetan.

Onartutako proiektuan aurreikusitako kostu eta/edo epeekiko ehuneko 20 baino gehiagoko desbideratzeak egiaztatuz gero, edo kontratistaren akatsak edo omisioak antzemanez gero, kontratuaren prezioaren murrizketa aplikatuko da kalte-ordain gisa.

Aurrekoa gorabehera, kontratistak erantzukizuna izango du bai BIDEGI SAri, bai hirugarrenei I+G proiektua gauzatzean edo emaitzak ustiatzean eragiten zaizkien kalte-galerengatik, proiektuaren akats edo gabezia teknikoen ondorioz edo hari egoztekoak zaizkion akats materialen, omisioen edo legezko edo erregelamenduzko aginduen arau-hausteen ondorioz, SPKLren 311. artikuluan ezarritakoaren arabera, bazter utzi gabe BIDEGI SAri esku hartzen duten beste agente batzuen aurrean dagozkion ekintzak.

41.- Herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzuak emateko kontratuen berezitasunak

1.- Enpresa kontratistak betebehar hauek izango ditu: zerbitzua hitzartutako jarraitutasunarekin ematea, eta erabiltzaileei zerbitzua ezarritako baldintzetan eta, hala badagokio, finkatutako kontraprestazio ekonomikoa ordainduta erabiltzeko eskubidea bermatzea; zerbitzua behar bezala ematen dela zaintzea; zerbitzua emateko egin beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalteak ordaintzea, entitate kontratatzaileari egoztekoak zaizkion arrazoiengatik sortutakoak izan ezik; eta kontratuaren arabera egin behar dituen obrak eta instalazioak kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera egokian entregatzea.

2.- Kontratistak kontratua betetzen ez badu eta, ondorioz, zerbitzuan nahasmendu larria eta beste bide batzuetatik konpondu ezin dena sortzen bada, eta entitate kontratatzaileak kontratua suntsiaraztea erabakitzen ez badu, kontratua bahitzea edo etetea erabaki ahal izango du, harik eta nahasmendua desagertzen den arte. Nolanahi ere, kontratistak entitate kontratatzaileari benetan eragin dizkion kalte-galerak ordaindu beharko dizkio.

3.- Entitate kontratatzaileak beharrezko polizia-ahalak gordeko ditu, kasuan kasuko herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzuen martxa egokia ziurtatzeko.

42.- Jabetza intelektualaren eskubideak

Kontratuaren xedea denean jabetza intelektual edo industrialeko eskubideek babestutako produktuak, emaitzak, prototipoak, prozedurak edo soluzioak garatzea eta eskura jartzea, eskubide horietatik eratorritako jatorrizko titulartasuna BIDEGI SAri dagokio oso-osorik eta esklusiboki, SPKLren 308. artikuluaren arabera.

Kontratu honen adjudikaziodun suertatzen den enpresak onartzen du kontratua egikaritzean lortutako emaitzak BIDEGI SAren titulartasuneko asmakuntzak, obrak edo prestazioak direla, babesgarriak diren heinean, eta bere gain hartzen du BIDEGI SAren alde egitea jabetza intelektual eta industrialeko eskubideen lagapen osoa, esklusiboa eta doakoa formalizatzeko behar diren egintza guztiak, eta, hala badagokio, beharrezkoak diren lagapen-dokumentuak, ahalak eta asmatzailearen deklarazioak sinatzea.

Emaitzak patente bidez edo jabetza industrialeko beste titulu batzuen bidez babestu badaitezke, BIDEGI SA izango da eskabidearen eta, hala badagokio, ematen den patentearen edo tituluaren titular bakarra. Kontratistak eskaera prestatu eta tramitatuko du BIDEGI SAren izenean eta haren kontura, eta hark jardungo du mandatari edo ordezkari gisa, asmakuntzaren gaineko inolako titulartasun- edo erabilera-eskubiderik eskuratu gabe.

Kontratistak ez du inolako ustiapen- edo erabilera-eskubiderik izango kontratutik eratorritako jabetza intelektual edo industrialeko eskubideek babestutako emaitzen gainean, eta debekatuta egongo da horiek erabiltzea, erreproduzitzea, aldatzea, lagatzea edo hirugarrenei jakinaraztea,

salbu eta BIDEGI SAk aldez aurretik eta berariaz dokumentu bereizi batean baimena ematen badu.

Kontratistak bermatzen du jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak BIDEGI SAri lagatzean ez dela hirugarrenen kargarik, lizentziarik edo eskubiderik egongo, eta hitzematen du BIDEGI SAri ez diola kalterik egingo hirugarrenek egindako edozein erreklamazioren aurrean, kontratuaren emaitzen ondorioz jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak urratzean oinarrituta egina bada.

Aurrekoa ulertzen da jabetza intelektualari buruzko legerian egileari aitortzen zaizkion eskubide moralak eragotzi gabe.

43.- Berandutzearen ondoriozko zigorrak eta beste zigor batzuk

1.- Kontratazio-organoak, SPKLren 192. eta 193. artikuluetan ezarritakoaren arabera, zigorrak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, baldintza-agiri honen 39. klausulan jasotako betebeharrak ez betetzeagatik; zehazki, honako hauek:

a) Guztizko epea edo epe partzialak betetzen berandutzeagatik.

b) Prestazioa behar bezala ez emateagatik, baldintza-agiri honetan jasotako beste edozein egikaritze-baldintza berezi ez betetzeagatik edo behar bezala ez betetzeagatik, baldin eta hurrengo ataletan adierazitakoez bestelakoak badira.

c) Eskaintzak baloratzeko irizpide gisa kontuan hartutako alderdiei eragingo dien ez-betetzeagatik edo betetze akastunagatik.

d) Soldaten ordainketa behin eta berriz ez betetzeagatik edo atzeratzeagatik, edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata-baldintzen azpiko baldintzak aplikatzeagatik, horiek larriak eta doluzkoak badira.

e) Azpikontrataziorako betebeharrak, baldintzak eta gainerako eskakizunak urratzeagatik.

f) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzeagatik, hala eska daitekeenean.

g) Foru sektore publikoko kontratazioan erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu-klausulak txertatzeari buruzko urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauaren 30.2 artikuluan jasotako betebeharrak ez betetzeagatik.

2.- Zigorren zenbatekoa hau izango da:

a) a) letran jasotako kausagatik, SPKLren 193. artikuluaren 3. apartatuan aurreikusitako zenbatekoa, ezaugarrien taulako **25. atalak** beste batzuk ezartzen dituenean izan ezik.

b) b), c), d) eta e) ataletan jasotako kausengatik, kontratuaren prezioaren % 4, non eta kontratazio-organoak, arrazoituta, ez duen uste ez-betetze hori astuna edo oso astuna denik; kasu horretan, lehen kasuan, % 7ra artekoa izan daiteke, eta bigarrenean % 10era artekoa. Ez-betetzea behin eta berriz egitea kontuan hartuko da larritasuna baloratzeko.

c) e) letran jasotako kausagatik, azpikontratuaren zenbatekoaren % 50era arte.

d) f) letran jasotako kausagatik, euro bateko zigorra egunero, kontratuaren prezioaren 5.000 euroko.

e) g) letran jasotako kausa ez-betetze oso astuntzat hartuko da.

Zigor horiek, klausula honen beraren 1. ataleko a) letran aipatzen diren betebeharrak urratzeagatik adierazitakoak izan ezik, ez-betetzearen larritasunaren araberakoak izan beharko dute. Horietako bakoitzaren zenbatekoak ezin izango dira izan kontratuaren prezioaren % % baino handiagoak (BEZa kanpo), eta horien guztizkoak ezingo du gainditu kontratuaren prezioaren % %.

3.- Kontratuaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, kontratua behar bezala egikaritzeko beharrezkotzat jotzen bada aurreko paragrafoan adierazitakoez bestelako zigorrak ezartzea, zigor horiek ezaugarrien taulako **25. atalean** zehaztuko dira.

4.- Enpresa kontratista berandutze-egoeran sartzeko, ez da beharrezkoa izango entitate kontratatzaileak aldez aurretik ohartarazpena egitea.

5.- Kontratazio-organoak ez-betetzea egiaztatzen duenean ezarriko dira bitartekoak, hizkuntza-baldintzak edo kontratua egikaritzeko beste edozein baldintza berezi ez betetzeagatik edo akatsez ez betetzeagatik ezarritako zigorrak.

6.- Eskaintzak baloratzeko irizpide gisa kontuan hartutako alderdiei eragiten dieten ez-betetzearen edo behar bezala ez betetzearen ondoriozko zigorrak ezarriko dira, baldin eta kontratazio-organoak egiaztatzen badu, harreraren unean, kontratistari egoztekoak zaizkion kausengatik, kontratistak ez duela kontratua edo eskaintzan bere gain hartutako konpromisoren bat egikaritu, baldin eta konpromiso horiek garrantzitsuak izan badira adjudikaziorako.

Bete ez diren konpromisoak garrantzitsutzat joko dira, baldin eta kontratistak bete ez duen irizpidean lortutako puntuazioaren % 50 deskontatzean, haren eskaintza ondoen baloratu ez balitz.

7.- Betetze akastunaren ondoriozko zigorrak kontratistari legez dagokion betebeharra alde batera utzita ezarriko dira, akats horiek zuzentzeari dagokionez.

8.- Zigorra ezartzeak ez du kalte-galeren ordaina baztertzen.

9.- Berandutzearen ondoriozko zigorren zenbatekoa fakturetatik edo ziurtagirietatik kenduko da, eta, hala badagokio, bermetik, haiek aipatutako dokumentuetatik kendu ezin direnean. Haiek bermearen gainean ordaintzen direnean, kontratistak bermea berritu edo handitu egin beharko du, egikaritzetik hamabost egun naturaleko epean; bestela, kontratua suntsiarazteko kausan sartuko da.

44.- Kontratuaren aldaketak

A) Baldintza-agiri honetan aurreikusitako aldaketak: Ez dira aurreikusten.

B) Baldintza partikularren agirian aurreikusi gabeko aldaketak

1.- Kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da, SPKLn aurreikusitako kasuetan eta moduan, eta SPKLren 203. artikulutik 207. artikulura erregulatutako prozedurarekin bat etorriz. 205.2 artikuluko kasuetan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat.
2.- Kontratua Bidegik eskatuta bakarrik aldatu ahal izango da, baldintza-agiri honetan aurreikusitakotik kanpo, baldin eta SPKLren 205.2 artikuluan jasotako arrazoiren bat dagoela justifikatzen bada.
3.- Kontratuaren xedean aldaketaren bat sartzea beharrezkoa denean, kontratuaren zuzendariak beharrezko proposamena idatziko du, proposamena justifikatu, deskribatu eta baloratuko duten dokumentuek osatutakoa.
4.- Bidegik aldaketa onartzeko, kontratistari entzun beharko dio aldez aurretik.
5.- Bidegik aldaketa idaztea erabaki ondoren, baldin eta horrek lanen zati jakin batzuk egiten jarraitzeko ezintasuna badakar, kontratua aldi baterako etetea erabaki beharko da, partzialki edo osorik, dagokionaren arabera. Salbuespen izango da 242.5 artikuluan erregulatutakoa. Halakoetan, kontratazio-organoak erabaki ahal izango du lanek behin-behinean jarraitzea, egindako proposamen teknikoan oinarrituta, eta, betiere, igoera ez bada kontratuaren hasierako prezioaren % 20tik gorakoa.
6.- Ez kontratistak, ez zuzendariak, ezingo dute behar bezala onartu gabeko aldaketarik sartu edo egin. Bidegik eska dezakeen erantzukizunari eta baldintza-agirian aurreikusitakoari kalterik egin gabe, kontratuaren xedean Bidegik behar bezala baimendu ez dituen aldaketek

kontratistaren erantzukizuna eragingo dute, eta kontratista behartuta egongo da aldaketa horien eraginpeko zatia berregitera, inolako ordainketarik jasotzeko eskubiderik gabe.
Kontratua eteten bada, SPKLren 208. artikuluan eta hura garatzeko arauetan xedatutakoa beteko da. Bidegik lanak etetea erabakiz gero, dagokion etete-akta egingo da.
Baldintza-agirian eta 205. artikuluan aurreikusitako aldaketak batzea nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, SPKLn jasotako zenbatekoarekin eta mugekin.
7.- Kontratuaren aldaketak SPKLren 207. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

45.- Kontratistari ordaintzea

1.- Zerbitzua hileroko ziurtagirien bidez ordainduko da, eta hura entregatu eta adostasunez hartu ondoren, aurretiaz fakturak edo dokumentu baliokidea aurkeztuta (entrega partzialak badira ziurtagiriak eta, hala dagokionean, harrera-akta). Horretarako, kontratistak hogeita hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko du faktura, entrega-datatik zenbatzen hasita.

2.- Ordaintzeko epea zehazteko, 15/2010 Legean ezarritakoari jarraituko zaio. Lege horrek merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen du.

3.- Nolanahi ere, enpresa kontratistak faktura aurkezteko hogeita hamar egun naturaleko epea betetzen ez badu, interesen sortzapena ez da hasiko faktura dagokion erregistroan aurkezten denetik hogeita hamar egun natural igaro arte, entitate kontratatzaileak adostasuna onartu eta, hala badagokio, eta bidezko ordainketa egin gabe.

4.- Bestalde, entitate kontratatzaileak eman diren zerbitzuak kontratuan xedatutakoarekin bat etortzearen egiaztagiriak onartu beharko ditu, ondasunak benetan entregatu eta hurrengo hogeita hamar egun naturalen barruan.

46.- Kontratua etetea

Kontratua etenez gero, SPKLren 208. eta 313. artikuluetan eta APKLEOren 103. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Etendura aldi baterako, partzialki, osorik edo behin betiko bada, etendura horren akta egingo da.

47.- Harrera eta bermealdia

47.1.- Harrera eta likidazioa

1.- Kontratistak kontratuan ezarritako epearen barruan eta preskripzio teknikoekin eta administrazio-klausulekin bat etorriz eman beharko du zerbitzua.

2.- Kontratua betetzat joko da kontratistak haren xede osoa bete duenean, kontratuaren terminoen arabera eta entitate kontratatzailearen nahierara. Horretarako, aurkeztutako dokumentazioa edo egindako prestazioa aztertuko du kontratuaren arduradunak, eta, preskripzio teknikoak eta administrazio-klausulak bete direla jotzen badu, harrera egitea proposatuko du.

3.- Kontratuaren xedea amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan, egintza formal bidez, hura hartu egingo da.

Era berean, harrera partzialak egin ahal izango dira modu bereiz erabil daitezkeen kontratu zatien gainean.

4.- Segidako traktua duten kontratuak kontratatutako prestazioa amaitzean edo kontratu-epea bukatzean hartuko dira.

47.2.- Bermealdia

1.- Bermealdia ezaugarrien taulako **20. atalean** ezarritakoa izango da, edo, hala badagokio, adjudikaziodunak eskainitakoa.

2.- Epe horretan egiaztatuko balitz egindako lanetan ezkutuko akatsak daudela, entitate kontratatzaileak eskubidea izango du kontratistari akats horiek zuzendu ditzan erreklamatzeko.

3.- Jarduera hutseko kontratuak, bermealdirik aurreikusita ez badute, epea betetzeagatik azkenduko dira, hargatik eragotzi gabe entitate kontratatzaileak gerora hautemandako edozein ez-betetzeren ondorioz kontratistaren erantzukizuna argitzeko dituen prerrogatibak.

Kontratistak eskubidea izango du kontratatutako prestazioa betetzeari buruz egiten zaizkion oharren inguruan entzuna izateko.

4.- Bermealdia entitate kontratatzaileak eragozpenik formalizatu gabe amaitzen bada, kontratista egindako prestazioaren erantzukizunetik salbuetsita geratuko da, alde batera utzi gabe obra-proiektuak egiteko kontratuetarako berezitasunak.

47.3.- Bermea itzultzea

Ezaugarrien taulako **20. atalean** adierazitako berme-epea entitate kontratatzaileak eragozpenik formalizatu gabe igarotzen bada, kontratistak ez du inolako erantzukizunik izango egindako zerbitzuagatik, eta behin betiko bermea itzuli edo ezereztu egingo da.

48.- Kontratua suntsiaraztea

1.- Kontratua suntsiarazteko arrazoi izango dira, SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoez gainera, ez betetzea SPKLn adierazitako funtsezko betebeharrak, **39.3 klausulan** adierazitakoak eta ezaugarrien taularen **23. atalean** kontratuaren funtsezko betebehar gisa adierazitakoak.

2.- SPKLren 211.2 artikuluarekin bat etorriz, kontratua suntsiarazteko kausa bat baino gehiago dagoen kasuetan, azkentzearen ondorio ekonomikoak direla-eta ondore desberdinak dituztenak, denboran lehenengo agertu direnei erantzun beharko zaie.

3.- Kontratazio-organoak erabakiko du kontratua suntsiaraztea, SPKLren 212.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, erregelamenduz ezarritako moduan tramitatutako prozeduraren bidez.

4.- Kontratistaren erruz kontratua bete gabe gelditu eta suntsiarazten bada, bahitu egingo zaio bermea, eta, gainera, sortutako kalte-galeren kalte-ordainak eman behar dizkio entitate kontratatzaileari, bahitutako bermearen gainetik doan zenbatekoraino. Kontratazio-organoak zehaztuko du zer kalte-galera ordaindu behar dituen kontratistak, erabaki arrazoitua hartuta, aldez aurretik hari entzunda, eta kontuan hartuta, besteak beste, izandako atzerapena eta entitate kontratatzaileari eragindako gastu handiagoak.

5.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak aplikatzeko, SPKLren 212. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, eta, horren ondorioetarako, SPKLren 213. eta 313. artikuluetan xedatutakoari, eta, hala badagokio, erregelamendu-garapenean xedatutakoari.

6.- Kausa hauengatik ere suntsiarazi ahal izango da kontratua:

a) Kontratua egikaritzen den bitartean, kontratistak kontratuari atxikitako langileei soldatak ez ordaintzeagatik, edo langile horientzat indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

   Kontratua arrazoi horrengatiko suntsiaraztea, oro har, enpresa kontratistako langileen ordezkaritzak eskatuta erabakiko da. Salbuespen izango dira soldatak ez ordaintzeak eragiten dien langileak SPKLren 130. artikuluaren arabera subrogatu behar diren langileak izatea, eta enpresa kontratistak zor dituen soldaten zenbatekoak kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 5 gainditzea. Horrelakoetan, kontratua ofizioz suntsiaraztea erabaki ahal izango du kontratazio-organoak zuzenean.

b) Baldintza-agiri honen arabera, laneko segurtasun eta osasunaren arloko betebeharrak oso modu larrian ez betetzea.

c) Hasiera batean kontratuari atxikitako langile kopuruarekin kontratua egikaritzeko ezintasuna.

d) SPKLren 294. artikuluaren c), d) eta f) letretan adierazitako kausengatik, herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten kontratuetarako.

7.- Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, kideren bat SPKLren 211.1 a) eta b) artikuluko kasuan sartuta badago, entitate kontratatzaileak ahalmena izango du aldi baterako elkartea osatzen duten gainerako enpresei kontratu-betebeharrak bete ditzaten exijitzeko edo kontratua suntsiarazteko.

8.- Hala ere, ez-betetzeen ondoriozko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5aren multiplora iristen direnean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo betearazten jarraitzea erabakitzeko, beste zigor batzuk ezarrita.

9.- SPKLren 180.1 artikuluaren arabera, BIDEGIk erabaki ahal izango du, kontratua adjudikatu ondoren eta fase bakoitzaren amaieran, eta manu horren arabera, berrikuntzarako elkartea suntsiaraztea edo, berrikuntzarako elkarteak bazkide bat baino gehiago bat baditu, bazkide kopurua murriztea kontratu indibidualak suntsiarazita. Elkartearen suntsiarazte edo parte hartzen duten hautagaien kopurua murrizte horrek ez du, inola ere, kalte-ordainik ekarriko.

I. ERANSKINA.- LIZITAZIO EZ-ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

LIZITAZIO-SISTEMA EZ-ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau bitarteko ez-elektronikoen bidez egingo da. Horrenbestez, dokumentazio guztia (1., 2. eta 3. zenbakiko gutun-azalak) gutun-azal itxi eta zigilatuetan aurkeztu beharko da, bereizita eta banaka, agiri honetan zehar adierazitako epeetan. Ezin izango dira, inola ere, 1. eta 2. zenbakiko gutun-azaletan sartu 3. zenbakiko gutun-azalean aurkeztu beharreko eskaintza ekonomikoak.

1. zenbakiko gutun-azala (parte hartzeko eskaera) aurkeztu ondoren BIDEGIk hautagai gisa hautatzen dituen enpresek soilik jarraitu ahal izango dute lizitazio-prozeduran, 2. eta 3. zenbakiko gutun-azal independenteak aurkeztuz, agiri honetako 14. eta 26. klausuletan xedatutakoaren arabera.

Lizitazio-prozedura honi dagokion dokumentazio guztia BIDEGI SAren bulegoetan aurkeztu beharko da, karatulako 13. atalean adierazitako helbidean.

Aipatutako gutun-azalak aurkezteko moduari buruzko zalantzarik izanez gero, honako bide hauen bidez argitu ahal izango dira:

Telefonoa: 943 31 13 01
Helbide elektronikoa: adm@bidegi.eus

I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

☐ **Nire izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

* *Aldi baterako enpresa-elkartearen kasuan, eredua egokitu ABEEa osatuko duten enpresa bakoitza ordezkatuko duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko.*

DEKLARATZEN DU(TE)

Kontratua adjudikatzeko prozedurari buruzko jakinarazpen eta komunikazioen ondorioetarako (izena eta espediente-kodea):

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia-kodea**

Jakinarazpenak eta komunikazioak elektronikoki egiteko datuak hauek dira[1]:

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK

Kalea/Plaza/Hiribidea/...	**Zk.**	**Solairua**	**Eskua**
Udalerria	**PK**	**Probintzia**	
Telefonoa	**Mugikorra**		

Abisurako helbide elektronikoa:

Hartzailea izango den pertsonaren izen-abizenak:

Jakinarazpena/komunikazioa jasotzeko aukeratutako Euskara ☐ Gaztelania ☐

[1] *Adjudikaziodun izanez gero, aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko konpromisoarekin zenbait enpresak parte hartzeko eskaintza edo eskabidea aurkezten badute, helbide bakar bat aurkeztu beharko dute jakinarazpen eta komunikazioetarako.*

II. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1.- Lizitatzaileak EKAB agiria aurkezteak aurretiazko froga gisa balio du lizitazio-prozedura honetan parte hartzeko baldintza-agiri honetan zehaztutako AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA egiaztatzeko.

Lizitatzaileek EKAB agiria aurkeztu beharko dute, hau da, enpresek kontratazio publikoko prozedura batean parte hartzeko dituzten finantza-egoerari, gaitasunei eta egokitasunari buruzko erantzukizunpeko deklarazioa, bat etorriz SPKLren 140. artikuluarekin eta Batzordearen 2016/7 (EB) Betearazpen Erregelamenduarekin (2016ko urtarrilaren 5ekoarekin); erregelamendu horrek prozedura horren formulario normalizatua eta hori betetzeko jarraibideak ezartzen ditu.

Kontratazio-organoak BAT zenbakiko gutun-azalean aldez aurretik aurkeztutako erantzukizunpeko deklarazioak egiaztatzeko ahalmena baliatu ahal izango du, eta, horretarako, dagozkion dokumentu-ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, 69 Legearen 39/2015. artikuluaren arabera.

Nolanahi ere, lizitatzaileak EKAB agiria aurkezteak konpromiso hau dakar berekin: kontratuaren adjudikazio-proposamena bere aldekoa bada, **34.2 klausulan** aurreikusitakoaren arabera ordezkatzen dituen egiaztagiriak aurkeztea.

2.- EKAB formulario normalizatua.

EKAB agiriaren formulario normalizatua lizitatzaileentzat eskuragarri dago helbide elektroniko honetan: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es.

3.- Jarraibideak:

Nolanahi ere, dokumentuan deklaratzen diren baldintzak lizitazioaren azken egunean bete behar dira, kontratatzeko debekuak izan ezik, horiek kontratua formalizatu arte jarraitu behar baitute gutxienez (entitate kontratatzaileak prozeduraren edozein unetan egiaztapenak egin ahal izango ditu).

Deklarazioa horretarako ahalmen nahikoa duenak sinatu behar du.

Kontratuaren xedea **sortaka zatitzea** aurreikusten denean, kaudimen ekonomiko eta finantzario edo tekniko edo profesionaleko baldintzak sorta batetik bestera aldatzen badira, kaudimen-baldintza berberak aplikatzen zaizkion sorta edo sorta multzo bakoitzeko EKAB bana aurkeztuko da.

Exijitutako bitartekoen atxikipena lizitatzaileaz **kanpoko baliabideekin** betetzen bada, lizitatzaileak eta kontratua egikaritzeari atxikitako bitarteko bakoitzak EKAB agiri bana aurkeztu beharko dute.

Enpresa bat baino gehiago **aldi baterako elkarte** bat eratuta aurkeztua gero, elkarte hori osatzen duen enpresetako bakoitzak bere nortasuna, gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, eta guztiek EKAB agiriaren formulario normalizatu bana aurkeztu beharko dute. EKAB agiriko formulario normalizatuaz edo normalizatuez eta ABEEa eratzeko konpromisoaz gainera, edo behin-behineko bermearen egiaztagiriaz gainera, hala badagokio, BAT zenbakiko gutun-azalean lizitatzaileek enpresa talde bateko kide direnaren edo ez direnaren deklarazioa sartu beharko da, baldintza-agiri honen **V. eranskineko** ereduaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan **inskribatuta** agertzen diren **enpresek** ez dituzte eman beharko dagoeneko modu eguneratuan inskribatuta dauden datuak, betiere EKAB agiriaren formulario normalizatuan inguruabar hori adierazten bada. Nolanahi ere, lizitatzaileak ziurtatu behar du zein datu dauden benetan inskribatuta eta eguneratuta eta zein ez. Eskatutako datu edo informazioren bat aipatutako lizitatzaileen erregistroetan jasota ez badago edo erregistro horietan eguneratuta ez badago, formularioa beteta aurkeztu beharko da.

EKAB formulario normalizatua erabiltzeari dagokionez, lizitatzaileek dokumentu hauek **kontsultatu ahal izango dituzte**:

• 2016/7 (EB) Erregelamendua, web-orri honetan eskuragarri:

https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf

• Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen gomendioa, 2016ko apirilaren 6koa, hemen eskuragarri:

http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/D.G.%20PATRIMONIO/Junta%20Consultiva/informes/Informes%202016/Recomendacion%20de%20la%20JCCA%20sobre%20el%20DEUC%20aprobada%20el%206%20abril%20de%202016%20_3_.pdf

4.- Prozedura honetarako formulario singularizatua duen XML fitxategia kontratatzailearen profilean dago.

III. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN-IFZ**

☐ **Nire izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN-IFZ**

☐ **Nire izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN-IFZ**

☐ **Nire izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

** Eredua egokitzea, adjudikaziodun izanez gero aldi baterako enpresa-elkartea osatuko duten enpresetako bakoitza ordezkatuko duten pertsona guztiei buruzko datuak eransteko.*

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena **Erreferentzia-kodea**

DEKLARATZEN DUTE

1. Aipatutako kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela partaidetza-ehuneko honekin:

Enpresaren izena	%

2. Elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar izendatzen dute, kontratua iraungi arte kontratutik eratorritako eskubideak egikaritzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoekin, honako hau:

Izen-abizenak	

Lekua eta data:

Enpresaren izena	*sinadura*
Enpresaren izena	*sinadura*
Enpresaren izena	*sinadura*

2026JKIR0020

IV. ERANSKINA.- BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA DEKLARATZEKO EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN-IFZ**

☐ **Nire izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena **Erreferentzia-kodea**

DEKLARATZEN DU

Konpromisoa hartzen duela aipatutako kontratua egikaritzeko bitarteko hauek atxikitzeko:

☐ **Giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa:**

☐ **Baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa:**

V. ERANSKINA.- ENPRESA-TALDEARI BURUZKO DEKLARAZIOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN-IFZ**

☐ **Nire izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena **Erreferentzia-kodea**

DEKLARATZEN DU

Ordezkatzen duen enpresa:

☐ BADAGOELA Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko kasuren batean.

☐ EZ dagoela Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko ezein kasutan.

Erantzuna baiezkoa bada:

☐ EZ duela talde berekoak diren edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako ordezko kasuren batean dauden enpresekin egindako kontratuaren adjudikazioan parte hartzen.

☐ Talde berekoak diren edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako ordezko kasuren bat betetzen duten enpresekin egindako kontratuaren adjudikazioan PARTE HARTZEN duela. Horiek proposamen indibidual hauek aurkezten dituzte:

IFZ/IFK	Izen soziala

* Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua: “Sozietateen talde baten sozietate nagusi orok atal honetan aurreikusitako moduan egin beharko ditu urteko kontuak eta kudeaketa-txosten bateratuak.

VI. ERANSKINA.- KONFIDENTZIALTZAT JOTZEN DIREN AURKEZTUTAKO DOKUMENTU ETA DATUEN DEKLARAZIO OSAGARRIAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

☐ **Nire izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**
Ordezkatuaren izen soziala:
Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia-kodea**

DEKLARATZEN DU

Isilpekotzat jotzen dituela eskaintzaren **dokumentu, informazio eta alderdi** hauek, sekretu tekniko edo komertzialekin duten loturagatik: [2]

1.
2.
3.

……..…

Konfidentzialtasun hori arrazoi hauetan oinarritzen da:

1.
2.
3.

……..…

[2] Konfidentzialtasun-deklarazioa ezingo da egin enpresak aurkeztutako dokumentazio osorako, ezta eskaintza teknikoaren egiaztagiri guztietarako ere. Horrelakoetan, edo deklarazio hori behar ez bezala dimentsionatzen bada, kontratazio-organoak erabakiko du zer datu eta/edo dokumentu hartu behar diren kontuan. Enpresak ez badu berariaz isilpeko datu edota dokumenturik adierazi, ulertuko da aurkeztutako datu eta/edo dokumentuetako bat ere ez dela konfidentziala. Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren, ezingo da konfidentzialtzat jo aurkezterakoan halakotzat jo ez diren datuak.

VII. ERANSKINA.- ABAL-EREDUA

KREDITU-ENTITATEAREN EDO ELKARREN BERMERAKO SOZIETATEAREN DATUAK

Sozietatearen izena			**IFZ**	
Jakinarazpen eta errekerimenduetarako helbidea:				
Kalea/Plaza/Hiribidea/...		**Zk.**	**Solairua**	**Eskua**
Udalerria	**PK**		**Probintzia**	
AHALDUNA(K)				
Izen-abizenak			**IFZ**	

Goian adierazitako entitatea, eta bere izenean eta egintza honetan behartzeko ahalorde nahikoa duten aipatutako pertson(ar)en izenean, dokumentu honen behealdean aipatzen den ahalorde-askiespenetik ondorioztatzen denez, entitate kontratatzailearen aurrean honako hauen abal-emaile solidario gisa eratzen da:

ABALATUTAKO PERTSONA EDO ENTITATEAREN DATUAK

Izen-abizenak / Izen soziala	**IFK/IFZ**

Berme mota

☐ **Behin-behinekoa** (SPKL, 106. artikulua)

☐ **Behin betikoa** (SPKL, 107. artikulua)

Kontratuaren xedea edo abalatuak bere gain hartutako betebeharra

Kontratazio-organoa

Abalaren zenbatekoa (letraz eta zifraz)

Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunpean deklaratzen du betetzen dituela Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 56.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak. Abal hau modu solidarioan ematen da obligaziodun nagusiarekiko, berariaz uko eginda eskusio-onurari eta kontratazio-organoaren lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta, sektore publikoko kontratuen legerian, hura garatzeko arauetan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera.

Abal hau indarrean egongo da harik eta kontratazio-organoak edo haren izenean legez horretarako gaitzen denak hura ezerezteko edo itzultzeko baimena ematen duen arte, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta legeria osagarrian ezarritakoaren arabera.

Lekua eta data:
Entitatearen izen soziala:
Ahaldunen sinadura:

2026JKIR0020

VIII. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA ETA FORMULEN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN ESKAINTZAREN BESTE ELEMENTUENA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

☐ **Nire izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**
Ordezkatuaren izen soziala:
Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia-kodea**

A Z A L T Z E N D U

Lehenik. - Kontratazio-espedientearen proiektua, preskripzio teknikoen agiria eta administrazio-klausula partikularren agiria ezagutzen dituela.

Bigarrenik. - Enpresa lizitatzaileak indarrean dagoen araudiaren arabera sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez duela aitortzen duela, aipatutako proiektuko obrak gauzatzeko behar adinako gaitasun juridikoa eta bitartekoak dituela eta kontratu honetarako exijitzen diren berariazko baldintzak betetzen dituela.

Hirugarrenik.- Adjudikaziodun izanez gero, bere eskaintzaren baldintzen arabera egingo dituela obrak, eta hertsiki lotuta proiektuaren eta onartutako agirien betekizun eta baldintzei.

Laugarrenik.- Adierazten duela eskaintza prestatzean, bereziki eta gutxienez, lizitazioaren xede den jarduerarako indarrean dagoen hitzarmen kolektibo sektorialaren eta lurraldekoaren lan-baldintzak kontuan hartu dituela —bereziki, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako hitzarmen horretako azken testua—, eta kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei sektoreko hitzarmena baino onuragarriagoa den beste hitzarmen edo enpresa-itun bat aplikatzen bazaie, honako hau izango dela:

Bosgarrenik.- Adjudikaziodun izanez gero, hitzematen duela eskatzen den informazio guztia emango duela kontratua adjudikatu ondoren kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz.

Seigarrenik.- Aipatutako kontratazio-espedienteari dagokionez exijitzen diren baldintza eta betekizunen berri izanik, ondoren adierazten diren prezioak eta, hala badagokio, formulen bidez ebalua daitezkeen gainerako elementuen eskaintzak proposatzen dituela.

1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA

PROPOSAMENA	ESKAINTZA EKONOMIKOA LETRAZ ETA ZENBAKIZ	
	PREZIOA (letraz)	
	PREZIOA (zenbakiz)	€
	BEZ (% .....)	€
	GUZTIRA (BEZa barne)	€

2.- LIZITATZAILEAK ETAPAKA ETA PARTIDAKA EGINGO DUEN BANAKATZE EKONOMIKOA.

Banakatze hori instrumentala eta plangintzakoa/kontrolekoa izango da, eta orientagarria, baina inola ere ez du gainditukoadierazitako gehieneko prezioa.

Lekua eta data:

Enpresaren izena *sinadura*

IX. ERANSKINA.- Kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide-kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua DEKLARATZEKO EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

☐ **Nire izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**
Ordezkatuaren izen soziala:
Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia-kodea**

DEKLARATZEN DU

Lehenik: Konpromisoa hartzen duela Gipuzkoako Foru Administrazioaren **KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE-KODEA ETA ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ESPARRUA** betetzeko, Foru Gobernuaren Kontseiluak 2017ko irailaren 5eko bileran onartutakoa. Berori lizitatzaileen eskura dago helbide elektroniko honetan:

https://www.gipuzkoa.eus/documents/20933/6830633/Kontratazio_kodea-eu.pdf/5bbab274-c9cb-5b37-7e07-6f7fb1964ff6

Bigarrenik: Ez duela inolako interes-gatazkarik eta ez duela horri buruzko inongo harreman baliokiderik proiektuan interesa duten beste lizitatzaile edo alderdi batzuekin. Kontratua egikaritzeko aldian egoera hori gertatzen bada, enpresak bere gain hartzen du berori botere adjudikatzaileari jakinarazteko betebeharra.